

DEUSTUKO IKASTOLA IPI

AJA

AURKIBIDEA

I- DEUSTUKO IKASTOLAKO ORGANOAK

I-1 AGINTE ORGANOAK

a) TALDEKO ORGANOAK

- I-1.1 Ordezkaritza Organo Gorena
- I-1.2 Ikastolako Kontseiluko Batzordeak
- I-1.3 Klaustroa
- I-1.4 Zuzendaritza taldea

b) LAGUN BAKARREKO ORGANOAK

- I-1.5 Zuzendaria
- I-1.6 Zuzendari ordea
- I-1.7 Ikasketa burua eta ikasketa buru ondokoa
- I-1.8 Idazkaria

I-2 PARTAIDETZA ETA LANKIDETZA ORGANOAK

- I-2.1 Ikasleek parte hartzeko organoak
- I-2.2 Gurasoen batzarra
- I-2.3 Gurasoen Elkartea

I-3 PEDAGOGI KOORDINAZIORAKO ORGANOAK

- I-3.1 Irakasleria
- I-3.2 Tutoretza-funtzioa
- I-3.3 Irakas-taldeak
 - I-3.3.1 Ziklo/mailako taldeak
 - I-3.3.2 Departamentu didaktikoak
- I-3.4 Batzorde Pedagogikoa
- I-3.5 Hezkuntza-zerbitzuak
- I-3.6 Eskola-zerbitzuak

II- DEUSTUKO IKASTOLA IPI-KO KUDEAKETA-TRESNAK

II-1.1 Epe ertainarako proiektuak

1. Hezkuntza-proiektua
2. Curriculum-proiektua
3. Kudeaketa-proiektua
4. Hizkuntza-proiektua

II-1.2 Epe laburreko proiektuak

1. Urteko plana
2. Urteko memoria

II-2 Testuliburuaren kudeaketa solidarioa

II-3 Dokumentazio akademikoa

II-4 Ekonomi kudeaketarako tresnak

III- BIZIKIDETZARAKO ARAUAK

III-1. Printzipio orokorrak

III-2. Ikasleen eskubideak betetzeko bermea

III-3. Ikasleen betebeharrak betetzeko bermea.

IV- EBALUAZIO ETA PROMOZIO ARAUAK

V- BESTE ARAUAK

I- DEUSTUKO IKASTOLAKO ORGANOAK

I-1 – AGINTE ORGANOAK

DEUSTUKO IKASTOLAK honako organo hauek izango ditu:

a) TALDEKO ORGANOAK

- I-1.1 Ordezkaritza Organo Gorena
- I-1.2 OOGren Batzordeak
- I-1.3 Klaustroa
- I-1.4 Zuzendaritza Taldea

b) LAGUN BAKARREKO ORGANOAK

- I-1.7 Zuzendaria
- I-1.8 Zuzendari ondokoa
- I-1.9 Ikasketa burua eta Ondoko Ikasketa burua
- I-1.10 Idazkaria

I-1.1 Ordezkaritza Organo Gorena (OOG)

1.- Ordezkaritza Organo Gorena, euskal eskola publikoko ikastetxeetan eskola-elkarteko kideak parte hartzeko duten organoa dugu; eskola-bizitzan eragina duten funtsezko erabakiak berak hartzen ditu, bera dugu ikastetxearen autonomia-esparruan, ikastetxearen funtzionamenduaren arduraduna.

2.- Ordezkaritza Organo Gorenak, **Deustuko Ikastolako Kontseilua (IK)** izena hartuko du.

3.- Deustuko Ikastolako Kontseiluaren eraketa.

Zuzendaria, Kontseiluaren lehendakaria izango dena.
Ikasketa Burua.
Idazkaria (hitzarekin eta boto barik).
10 Irakasle (Hauetatik bat, Ondoko Ikasketa Burua izanik).
13 Guraso.
DBHko 2 ikasle.
Administrazio eta zerbitzuetarako langile bat.
Udaletxearen ordezkaria.

4.- Deustuko Ikastolako Kontseiluko partaideak, ordezkaritza lanetan jarduten dutenean, bakoitza izango da bakoitz, bere sektoreko kideekin bat etorri nahiz ez.

5.- Deustuko Ikastolako Kontseiluaren egitekoak ondorengoak izango dira:

- a) Ikastolaren **Hezkuntza-proiektua, antolakuntza eta jarduera-araudia eta kudeaketa proiektua** onartzea, bete daitezen begiratzea eta ebaluazioa egitea.
- b) Ikastolaren **Urteko plana** eta ondorengo **Memoria** onartzea.
- c) Prestakuntza-jardueren, eskolaz kanpokoen eta osagarrizkoen egitaraua eta urteko kudeaketa-egitaraua onartzea, horien jarraipena eta aldizkako ebaluazioa bere gain hartuz.
- d) Ikasleen onarpena erabakitzea, indarrean dagoen araudibidean agindutakoari bete-betean lotuz.
- e) Beste ikastetxe batzuekin lankidetzeta-harremanak izatea eta hezkuntzazko helburuez.
- f) Ikastolako instalazio eta tresneriaren aldaberrikuntza sustatzea, bai eta haien iraupena zaintzea ere.
- g) Ikastolaren jarduera orokorra gainbegiratzea, administrazio eta irakaskuntza alderdian.
- h) Legeek eta beste arau batzuek ematen dioten beste edozein aginpide.

6.- Ikastolako Kontseiluak, hara derizkionean, Asanblada Orokorra dei dezake.

Kontseiluak dituen funtzioak bete ahal izateko honakoak egin ditzake laguntzak eskuratzeko:

- Bereziki interesgarriak diren gaietan, ikastolako komunitateko talde desberdinen partaidetza-organoen **aburua eskatzea**.
- Egonkorak edo unean-unekoak diren **batzordeak eratzea**.
- **Laguntzeko zerbitzuei**, ikuskaritzari eta Administrazioari egoki iruditzen zaizkion txostenak eta aholkuak eskatzea.

7.- Ikastola Kontseiluaren funtzionamendurako araudia:

a).- Deustuko Ikastolako Kontseiluko bilerak, kide guztiak bertaratu ahal diren orduan eta egunean egingo dira. Bilerak arruntak zein apartekoak izan daitezke.

Bilera arrunten kasuan, ikastetxeko Zuzendariak, Ikastola Kontseiluaren lehendakaria dena alegia, Ikastola Kontseiluko kideei, aste bete lehenago biltzeko deialdia jakinaraziko die, eta bertan gai-zerrenda, data eta ordua adieraziko ditu; hala badagokio, alde zurretik eztabaidatu behar den dokumentazioak ezartzen duen kasuetan izan ezik, Ikastola Kontseiluak egiten dituen bilkurek aparteko izaera izateko premiazko arrazoiak behar dira, eta gai-zerrendan aipatu premiatasuna eragiten duten gaiak edo gaiak bakarrik zehaztuko dira. Gai-zerrendatik kanpo dauden gaiak ere eztabaidatzeko aukera izango da horretarako astia egonez gero, alabaina ezin izango dira aparteko gai horiei buruzko erabakiak hartu.

b).- Deustuko Ikastolako Kontseilua irakas-hiruhileko bakoitzean gutxienez behin bilduko da, beti ere ikastetxeko zuzendariak deialdia egiten badu, edo gutxienez, Ikastola Kontseiluko kideen herenak hala eskatzen badu; azken kasu honetan, Zuzendariak Ikastola Kontseilua biltzeko deialdia egingo du, gehienez hamar/zortzi eguneko epean. Edonola izanda ere, Ikastola Kontseilua ikasturte hasieran eta amaieran bilduko da.

Aparteko bileren deialdien kasuan, Zuzendariak IKko lehendakari bezala, berrogeita zortzi ordu lehenago, derrigorrezko deialdia egingo du.

c).-Deustuko Ikastolako Kontseiluak akordioak kontsentuz hartuko ditu; kontsentsurik ezean, gehiengo eralatiboaz hartuko ditu, jarraian zehazten diren kasuetan izan ezik:

- Ikastolaren Hezkuntza-Proiektua eta AJA onartzeko, baita bi kasuetan aldaketak egiteko ere, Ikastola Kontseilua osatzen duten kide guztien botoen bi herenen gehiengoa lortu beharko da.

- Hezkuntza Administrazioiko xedapen orokor batek horrela eskatzen duen kasuetan

8- Aurreko atalean zehaztutako ondorioetarako, “gehiengo erlatibotzat” eta “gehiengo absolututzat” jarraian azaltzen dena ulertuko dugu:

Gehiengo erlatiboa : bozketa egiteko unean dauden Organoko kideen erdia gehi bat, gutxienez.

Gehiengo absolutua: Organoko kideen “ de iure” osatzen duten kide guztien erdia gehi bat, gutxienez.

9.- Lehendakariaren eskumenak

Deustuko Ikastolako Kontseiluaren Lehendakariari jarraian azaltzen diren funtzioak dagozkio:

- Organoaren ordezkariak.
- Bilkura arrunten eta aparteko bilkuren deialdiak erabakitzea, baita gai-zerrenda zehaztea ere, horretarako gainontzeko kideek alde aurretik egindako eskaerak bilduz.
- Bilkuren buru izatea, eztabaiden garapena moderatzea eta arrazoi justifikaturik izanez gero, bilkura bertan behera uztea.
- Berdinketen kasuan, bere botoarekin berdinketa haustea, hartu beharreko akordioak hartu ahal izateko.
- Legeak betetzen direla ziurtatzea.
- Organoak hartzen dituen akordioen aktak eta ziurtagiriak onikustea.

10.-Mahaikideen eskumenak

Deustuko Ikastolako Kontseiluaren kideei jarraian azaltzen diren funtzioak dagozkie:

- Araudi honen 7. artikuluan xedatutakoari jarraiki, bilkurarako deialdi guztien jakinarazpena jasotzea organoaren Lehendakariaren aldetik, non azertu beharreko gai-zerrenda azalduko den, eta behar izanez gero, eztabaidatuko den dokumentazioa ere bilkura izan baino lehen bidaliko den.
- Bilkuren eztabaidetan parte hartzea.
- Botoa emateko eskubidea erabiltzea, pertsonala eta besterenezina dena, bere botoa ematea, baita botoaren zentzua eta botoa justifikatzen duten arrazoiak azaltzea ere.
- Galde-eskeak egitea.
- Esleitutako funtzioak bete ahal izateko beharrezkoa den informazioa lortzea.

Kontseiluaren kideek ezin izango dute Kontseiluaren ordezkari-funtziorik bete, salbuespen moduan organoaren arau batek edo onartutako akordio batek berariaz adierazten duen kasuetan izan ezik.

11.-Idazkariaren eskumenak

Deustuko Ikastolako Kontseiluaren Idazkariari jarraian azaltzen diren **funtzioak** dagozkio:

- Bileretara bertaratzea, hitzarekin eta botorik gabe.

- Lehendakariak hala aginduta, organoaren bilkuretarako deialdiak egitea, baita organoko kideei zitazioak bidaltzea ere.
- Organoko kideen eta organoaren arteko komunikazio-ekintzak jasotzea, eta ondorioz, kideen intereserako diren jakinarazpenak, datu-eskaerak, zuzenketak edo edonolako idatziak jasotzea.
- Gai desberdinei buruzko mezuak prestatzea eta bilkuren aktak idaztea.
- Organoak hartutako kontsulten, erabakien eta akordioen ziurtagiriak luzatzea, beranduago Lehendakariak onikusteko.
- Idazkariaren postua bete gabe badago, edo idazkaria gaixo badago edo beste edozein lege-arrazoirengatik idazkaririk ez badago, I.K.ko kide den irakasle batek ordezkatu du. Kasu honetan, Idazkariaren funtzioak betetzen dituen kideak hitza eta botoa izango ditu, organoa osatzen duten gainontzeko kideen baldintza berdinekin.

12.-Bilkuren Araudia

a) Deustuko Ikastolako Kontseilua eratzeko, bilkurak egiteko, eztabaidatzeko eta akordioak hartzeko, Lehendakariak eta Idazkariak bertan izan behar dute, edo hala badagokio, legez Lehendakaria eta Idazkaria ordezkatzeko duten pertsonak; eta horrez gain, Kontseilua eratzeko, batzordea osatzen duten kideen erdiak, gutxienez, bertaratu behar du.

b) Gai-zerrendan azaltzen ez den gairik ezin izango da eztabaidatu edo horri buruzko akordiorik hartu, taldeko organoko kide guztiak bertaratzeko diren kasuetan izan ezik, beti ere gehiengoaren aldeko botoak gaia premiazkoztat jartzen badu.

c) Deustuko Ikastolako Kontseiluak egiten duen bilera guztien akta idazkariak edo idazkariaren funtzioa betetzen duen kideak idatziko du. Aktan zehaztu behar diren datuak honako hauek dira: bertaratuak, bileraren gai-zerrenda, bilkura egin deneko lekua eta ordua, eztabaidatzeko gai nagusiak, baita hartzen diren akordioen edukia ere.

Horrez gain, aktan, organoko kideek hala eskatuta, honako datu hauek ere azalduko dira: hartutako akordioak izandako kontrako botoak, abstentzioak eta akordioa hartzea justifikatzen duten arrazoiak edo aldeko botoa emateko arrazoiak. Aldi berean, edozein kidek eska dezake berak esandakoa edo proposatutakoa, osorik, idatziz azaltzea, beti ere, ekitaldian bertan edo Lehendakariak ezartzen duen epearen barruan, berak, esandakoari dagokion testua aurkezten badu, eta horrela azalduko da aktan edo nahi izanez gero, esandakoaren kopia gehituko zaio aktari.

Gehiengoak hartutako akordioarekin bat ez datozen kideek berrogeita zortzi orduko epean, idatziz boto partikularra egin dezakete, eta onartutako testura gehituko da.

Organoko kideek kontrako botoa ematen dutenean edo botorik ematen ez dutenean, ez dute erantzunkizunik izango akordioen ondorioz izan daitezkeen ondorioei dagokienez.

Aktak, bilkuran bertan edo hurrengo bilkuran onartuko dira, baina hala ere, Idazkariak hartutako berriazko akordioei buruzko ziurtagiria luza dezake, ondoren akta onartzearen kaltetan izan gabe. Akta onartu baino lehen luzatzen diren hartutako akordioei buruzko ziurtagirietan, aipatu egoera, hots, akta onartu baino lehen hartutako akordioei buruzko ziurtagiria luzatu dela, jakinaraziko da.

Eztabaidatzeko gaiak garrantzitsuak direnean, edo IK-ko deialdi-bilkurara bertaratzeko den kideren batek hala eskatzen duenean, botazio bakoitzak bere boto-txartela emanaz egingo da,

eta jarraian ikastetxeko Lehendakariak eta idazkariak botoak zenbatuko dituzte, eta horrek guztiak aktan azaldu beharko du.

d) Deustuko Ikastolako Kontseiluak hartzen dituen berariazko akordioak eskola-elkarteari jakinaraziko dizkio, eta horretarako ondoko bideetariko bat erabil daiteke: iragarki-taula, webgunea,...

13.- Ikaskolako Kontseilua hautestea eta berritzea.

Bi urtetan behin, Kontseiluko kideen erdiak berrituko dira. Berritze hori txandaka gauzatuko da, halaxe ezarri baita OOGak arautzen dituen Dekretuan eta Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak argitaratu dituen deialdietan.

I-1.2 Deustuko Ikastolako Kontseiluko Batzordeak

Deustuko Ikastolako Kontseiluak zenbait funtzio edo eginkizun zehatz burutzeko batzordeak sortzeko eskumena izango du.

Batzar egonkor hauek eratuko dira:

- A) Batzorde iraunkorra
- B) Ekonomi Batzordea
- C) Elkarbizitza –Behatokia Batzordea

A- BATZORDE IRAUNKORRA

1- Batzorde Iraunkorra ondorengo kontseilukideok osatuko dute:

- Zuzendariak
- 2 Irakaslek
- 2 Gurasok
- Ikasle batek
- Udaletxearen ordezkariak
- Idazkariak, hizpidez eta boturik gabe.

OHARRA.

Guraso eta irakasleen ordezkariak aukeratzekoan etapako oreka zaintzea komenigarria da, hau da HH-Lhtik bat eta DBHtik beste bat.

2.-Batzorde Iraunkorrek honako **funtzio** hauek izango ditu:

- Ikastolako Zuzendaritza Taldearekin batera, kudeaketa-proiektua, prestakuntzarako jardueren eta jarduera osagarri nahiz eskolaz kanpoko jardueren programa eta urteko kudeaketa-programa lantzea, gero Ikastolako Kontseiluak onar dezan.
- Ikastolako Zuzendaritza Taldearekin batera, Planaren zirriborroa eta Ikastetxearen urteko memoria lantzea, ondoren Ikastolako Kontseiluak eztabaidatu eta onar dezan..
- Ikastolako Kontseiluko bilkuren gai-zerrenda prestatzea eta gaiak eztabaidatzeko dokumentazioa eskura izatea.

- Ikastolako Kontseiluaren berezko funtzioak bere gain hartzea, hots, Deustuko Ikastolaren jarduera orokorra gainbegiratzea, eta Urteko planaren jarraipena burutzea, bereziki prestakuntza-jardueren, eskolaz kanpoko jardueren eta jarduera osagarrien programarena.
- Zuzendaritza Taldeari gairen bat garrantzitsua iruditzen bazaio, bere eskumenekoa izan arren, erabakiak hartu aurretik ikastolako komunitatearen iritzia berri jakin nahi badu, Zuzendaritza Taldearen kontsulta organo gisa aritzea.
- Ikastolako Kontseiluak agindutako funtzioak eta eginkizunak betetzea.

3.-Batzorde Iraunkorra **hiru hilean behin** bilduko da. Hala ere, bilera bereziak deituko dira Batzorde Iraunkorreko talde bateko ordezkariak hala eskatzen dutenean.

B-EKONOMI BATZORDEA

Ondorengo kontseilukideok osatuko dute:

Ikastolako Kontseiluko Idazkariak

Irakasle batek .

2 gurasok (Haietariko bat Guraso Elkartearen diruzaina izatea komenigarria litzateke, bera kontseilukidea izatekotan).

Ikasle batek

Batzorde honen funtzioak:

- Ikastolaren ekonomía-kudeaketaren urteko plana lantzea, ikastolaren aurrekontuarekin batera, Ikastolako Kontseiluak onar dezan.
- Ikastolaren urteko balantzea lantzea, Ikastolako Kontseiluak onar dezan.
- Ikastolaren ekonomia-kudeaketa arrunta kontrolatzea, idazkariak aldiro-aldiro aurkeztu beharreko informazioaren bitartez.
- Ikastolako instalazioei eta ekipamenduari dagokienez dituen beharrak, baita ikastolaren mantenimenduari eta berritzeari dagokionez dauden beharrak ere I. Kontseiluari jakinaraztea, eta ikastolaren inbentarioaren eguneratzea kontrolatzea.
- Ikastolaren ekonomia-kudeaketaren urteko programaren gauzatzeari buruzko urteko memoria lantzea, aurrekontua barne, baita ikastolaren ekipamenduari eta instalazioei dagokienez egin beharreko hobekuntzei eta dauden beharrei buruzko urteko memoria ere lantzea, ondoren Ikastolako Kontseiluak onar ditzan

C- ELKARBIZITZA-BEHATOKIA BATZORDEA

Ondorengo kideok osatuko dute:

Zuzendaritzako kide batek

Orientatzaileak

Kontsultoreak

Olagarro proiektuaren arduradunak

3 gurasok (Haietariko bat eskolaz kanpoko ekintzez arduraduna, posible izatekotan)

Ikasle bik

Batzorde honen funtzioak honako hauek izango dira:

- Ikastolaren Elkarbizitza Plana egin, osatu eta abiarazi, eta, gero, jarraipena eta ebaluazioa egin horretaz.
- Estamentu guztien partaidetza aktiboa bermatu, bereziki, ikasleena.
- Harremanak hobetzeko bidean, proposamenak, egonezinak eta iradokizunak jaso estamendu guztiengandik, era horretara, gatazkak konpontzen eta elkarbizitza osasuntsua eratzen ikasteko.
- Eguneroko martxan sortzen diren beharrak eta gatazkak kudeatu eta bideratzeko ekintza-protokoloak proposatu.
- Berdinen arteko balizko tratu txarrak edota indarkeriazko kasuak detektatu eta adostutako neurriak lehenbailehen martxan jartzen direla bermatu.
- Lankidetzaz sustatu nahi dugu inguruko beste erakunde, organizazio eta entitate batzuekin, elkarbizitza positiboa eta kooperazio-kultura sustatzeko.

Hauetz gain, batzorde ez egonkor hauek interesgarritzat jotzen dira:

D- BATZORDE AKADEMIKOA

Ondorengo kideok osatuko dute:

Ikasketa buruak
3 irakaslek
3 gurasok
Ikasle batek

Batzorde honen funtzioak honako hauek izango dira:

- Hezkuntza Proiektua eguneratu eta bere jarraipena egin.
- Arlo akademikoaren informazioa jaso.
- Guraso eta ikasleen iradokizunak jaso.

E- EUSKARA BATZORDEA

Ondorengo kideok osatuko dute:

Zuzendaritzako kide batek
HNPko teknikariak
2 irakaslek
3 gurasok
Ikasle batek

Batzorde honen funtzioak honako hauek izango dira:

- Ikastola barruan (eremu formalean zein informalean) euskeraren erabilaren gaineko diagnostikoa egin ikastolako komunitatearen estamentu guztien partehartzea eta bereziki, ikasleen partaidetza sustatuz.
- Ikasturteko Euskara Plana eta Memoria egitea.
- Ikastolan eremu formalean normalkuntza plana diseinatu eta ebaluatu.
- Eremu ez formalean normalkuntza plana diseinatu eta ebaluatu.
- Euskal Herriko euskalgintzako eragileekin harremanetan egon eta elkarlanean aritu.

I-1.3. Klaustroa

1.- Irakasle-klaustroa **irakasleek** Deustuko Ikastolan **duten berezko partaidetza-organoa** da. Bertan lan egiten duten **irakasle guztiek** osatuko dute eta Deustuko Ikastolako zuzendaria izango da burua.

2.- Klaustroak ondorengo **funtzioak** izango ditu:

- Hezkuntza Proiektuan jasotako artezarauekin bat datozen Ikastolaren **ikasketa-proiektua eta irakaskuntza-jardunen egitaraua** egin eta onartzea.
- Irakaskuntza-jardueren egitarauaren **betetze mailaren berri ematea I. Kontseiluari,**
- **Ikasleak ebaluatu** eta berreskuratzeko lanari buruzko **irizpideak** ezarri eta koordinatzea.
- **Ikaslegoaren bideratze**-eginkizunak eta tutoretza planifikatzea eta zuzentzea.
- Ikastolan garatu behar diren **pedagogiazko** saioretarako eta **ikerketarako ekinbideak sustatzea.**
- Bere jarduera-arauak onartzea.
- Ikastolako Batzorde Iraunkorrerako bere ordezkariak hautatzea.

3.- Klaustroak egiten dituen bilkuretan ikastolako irakasle guztiek derrigorrez bertaratu behar dute, beraz, kideren batek ezin badu bilkuran bertaratu, horretarako arrazoiak justifikatu beharko ditu.

Ohiko bileretarako deia bilera baino astebete lehenago egingo da gutxienez. Salbuespen moduan, ezohiko bileretarako deiak egin daitezke, betiere, berrogeita zortzi orduko aurrerapenaz egiten badira. Hala egin daiteke premiaz landu behar den auziren bat badago.

4.- Klaustroaren erabakiak bozketaren bidez onartuko dira, eta onartuak izateko gehiengo erlatiboa lortu behar izango da; batzordeko kideen botoa pertsonala eta besterenezina da. Klaustroko kideek hala eskatuz gero, botazioa bakoitzak bere boto-txartela emanaz egingo da, eta ondoren ikastolako zuzendariak edo idazkariak boto-zenbaketa egingo du, eta hori guztia aktan idatziko da.

5.- Zuzendariak Klaustrorako **deialdia** egingo du, gai-zerrenda adieraziz. **Zuzendaritza-Taldeari** dagokio **gai-zerrenda** zehaztea, bere ekimenez nahiz irakas-taldeek edo irakasleek eskatuta, eta Klaustroko eztabaidarako eta erabakiak hartzeko beharrezko informazioak eskaini beharko ditu. Gai-zerrendatik kanpo dauden gaiak eztabaidatu ahal izango dira, baina horiei buruzko erabakiak hartzeko klaustrokide guztiak bertaratu beharko liriateke eta, botaketa eginda, gehiengo erlatiboaz gaia premiazkoa dela erabaki.

6.- Klaustroak, bere eskumen-esparruan, Zuzendaritza-Taldearen edo beste irakas-talde batzuen **proposamenak aztertze**ko zeregina izango du **eta**, hala balegokio, proposamen hauek **onartzekoa**.

7.- Ikasturtearen hasieran, ikasturtean zehar Deustuko **Ikastolan izango duen antolaketa** onesteko eta **irakas-jardueren programa** ontzat emateko bilduko da; ikasturtearen amaieran, urteroko **Memoriarako** ekarpen gisa, ikasturtearen garapenari buruz **bere txostena** lantzeko eta hurrengo ikasturteko irakas-ihardueren programan sartuko diren **proiektu didaktikoak** definitzeko bilduko da besteak beste.

8.- Deustuko Ikastolaren Curriculum-Proiektuaren eta Deustuko Ikastolaren urteko planeko irakas-jardueren programaren lanketan, berau praktikan jartzearen koordinazioan, ebaluazioan eta aldakuntzetan, Klaustroak irakas-taldean proposamenak jasoko dituen **Batzorde Pedagogikoa lan-taldetzat edukiko du.**

9.- Irakasle-klaustroa **gutxienez hiru hilabetero** bilduko da. Era berean, **zuzendariak** edo **Zuzendaritza-Taldeak** erabaki edo **irakaslegoaren herenak** eskatzen duen guztietan bilduko da. Idazkariak hartutako akordioen akta egingo du.

10.- Batzorde Pedagogikoa klaustroaren batzorde bat da, eta klaustroak ezarritako norabideen eta irizpideen arabera bete behar ditu bere eskumenak.

11.- Modu berean, irakasle-taldeak, maila guztietan, taldeko irakasle-taldetik hasita etapako taldera, baita Didaktika-departamentu guztiak eta Orientazio Zerbitzua ere, Klaustroko Batzordeak dira, irakaskuntzak koordinatzeko eta irakasle-talde bakoitzari dagozkion ikasleen orientazioa burutzeko.

I-1.4. Zuzendaritza Taldea

1.- Zuzendaritza-Taldea **zuzendariak, zuzendari-ordeak, Ikasketa-buruek (HH-LH eta DBH) eta idazkariak** osatuko dute.

2.- Zuzendaritza-Taldeari ondorengo **funtzioak** dagozkio:

- **Ikastolaren zuzendaritza eta koordinaziorako irizpideak erabakitze**ko eta jarduerari begira garrantzi handiagoko erabakiak hartzeko orduan **zuzendariari laguntzea.**
- **Kudeaketa-proiektua, prestakuntza-ihardueren, eskolaz kanpokoan eta osagarrikoen egitaraua eta urteko kudeaketa-egitaraua gauzatzea,** Ikastolako Kontseiluak onar ditzan.
- Aurreko puntuan adierazitako **programen burutzapena zaintzea eta koordinatzea,** eta horien betetze-mailaren berri ematea Ikastolako Kontseiluak onar dezan.
- **Urteko txostenaren zirriborroa** egitea, Ikastolako Kontseiluak eztabaida dezan.
- Ikastolako Kontseiluari euskal eskolako publiko nahiz ez-publiko diren beste zenbait zentroekin **lankidetzaren harremanak izateko proposamena** egitea eta, halaber, kultura eta hezkuntza-xedez, erakundeekin ituneak izenpetzeko proposamenak egitea, I. Kontseiluak, egoki baderitzo, hezkuntza administrazioari aurkez diezazkion.
- **Irakasle-taldeak antolatzea** eta irakasleak beren ihardueretara atxikitze irizpideak erabakitzea ikasturte bakoitzaren hasieran.
- Deustuko Ikastolaren irakas-praktikan **curriculum-proiektua betearaztea.**

3.- Eskola-jarduna **hiru esparrutan** banatuko da, horietako bakoitza taldeko kide baten ardurapean

- a) **Langileei eta kanpoko harremanei** dagokien esparrua **zuzendariaren** eskumena izango da
- b) **Pedagogiari eta hezkuntza-zerbitzuei** dagokien esparrua, **Ikasketa-buruarena**
- c) **Administrazio, ekonomi eta eskola-zerbitzuei** dagokien esparrua, **idazkariarena.**

4.- Zuzendaritza-Taldeak kide bakoitzari dagozkion funtzioekin zerikusia duten **erabakiak taldean hartuko ditu.** Horregatik, Deustuko Ikastolako arazoak eztabaidatzen

diren eta kide bakoitzak bere eskumen-esparruan burutuko dituen erabakiak hartzen diren organoa izango da.

5.- Ohizko izaeraz, **astean behin** bilduko da. Ezohizko izaeraz, zuzendariak erabaki edo taldeko beste bi kideek eskatzen duten guztietan.

6.- Zuzendaritza-Taldeari dagozkio ondoko **zeregin** hauek:

-**Urteko planaren** eta **azken Memoriaren** programen lanketa **koordinatzea**

-Urteko planaren martxaren jarraipena egitea, irakas-ihardueren eta kudeaketaren programena batez ere

-**Koordinatzaileen Batzordearen txostenak** eta proposamenak **jasotzea** eta nola abiarazi daitezkeen aztertzea

-**Klaustroaren** eta I. Kontseiluaren bilkuretako **gai-zerrenda** prestatzea

-**Informazio-bide egokiak finkatzea** eta zuzendaritza eta koordinazio-organo desberdinetarako beharrezko informazioa antolatzea

-Aldizka Ikastolako Kontseiluari eta Klaustroari **urteko planaren programak bete diren adieraztea** eta bere burutzapenean egin ahal izan diren aldakuntzen berri ematea

-Ikastolako Kontseiluari **proposamenak jasotzea**, publiko nahiz ez-publiko diren beste zenbait zentroekin **konbenioak ezartzeko**, eskolatzea hobetzeko, esperientzia eta baliabideak trukatzeko, eta baita ere Deustuko Ikastolak **harreman sistematikoak** izango dituen erakunde eta organismoekiko koordinazio moduak **finkatzeko**.

-Klaustroak gaiak eztabaidatu eta erabaki ahal izateko beharrezkoa den **informazioa luzatzea**.

I-1.5 Zuzendaria.

1.- Zuzendariari ondorengo **funtzioak** dagozkio:

- a) Ikastolaren ordezkartza ofiziala egitea.
- b) Ikastolaren jarduera zuzendu eta koordinatzea; ikas-ospakizunetarako eta batzar-organoen bileretarako dei egitea eta haietan mahaiburu izatea.
- c) Gastuak egiteko baimena ematea, ikastolaren urteko kudeaketa-egitarauarekin bat etorriz, eta ordainketak agintzea.
- d) Lan-, zerbitzu- eta hornikuntza-hitzarmenak egitea.
- e) Egiaztagiriak eta agiri ofizialak ikus-onestea.
- f) Arauak, erabakiak, proiektuak eta jarduera-egitarauak eta ikastolaren iharduerari eragiten dioten erabakiak betearaztea.
- g) Zuzendaritza-karguen izendapena proposatzea.
- h) Ikastolari atxikitako langile guztien buruzagitza izatea.
- i) Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko organoek ordezkotzan eman diezazkioten gainerako aginpideak; bestelako arauak eta araudi honek eman diezazkiotenak.

2.- Zuzendariak, bere funtzioak betetz, I. Kontseiluak eta Irakasle Klaustroak hurrenez-hurren beren eskumeneko gaitan hartutako erabakien eta planen arabera jokatu beharko du. Era berean, hezkuntza-komunitatea dinamizatzea dagokio, irakaslegoa batez ere, eta beren ekarpen eta interesak jasotzea eta bideratzea, komunikaziorako eta lankidetzarako bideak bilatuz.

3.- Zuzendariari dagozkio ondoko zeregin hauek:

- Zuzendaritza-Taldearekin batera, Deustuko Ikastolaren funtzionamendu orokorra eta azaltzen diren arazoak ezagutu eta jarraitzea, bertan gertatzen denaren azken erantzule gisa
- Zuzendaritza-Talderako, I. Kontseilurako eta Batzorde Iraunkorrerako deialdia egitea, gai-zerrenda moldatzea eta bilkura horietan buru izatea
- Zuzendaritza-Taldeak urteko plana betetzeari buruz lantzen duen txostena transmititzea
- Bere lehendakaritza-pekoren organoen erabakiak burutzea edo burutaraztea
- Deustuko Ikastolaren izenean Administrazioarekin, GEREkin eta gizarte, gizarte-ongizate, kultur... erakundeekin harremanak edukitzea
- Administrazioari, Deustuko Ikastola ongi antolatzeke, langilegoari dagokionez dituen beharrak aurkeztea eta Ordezkaritzari beharrezko ordezkapenak eskatzea
- Ikuskaritzara irakaslegoaren hutsegiteen hileroko parte igortzea, ezarritako epeen barruan
- Gastuak eta ordainketak onikustea
- Disziplina eta elkarbizitza-arazoak konpontzea, Araudi honetan ezarritakoaren arabera, irakaslegoari eta ikasleei eta beren familiei dagokienez.

4. Bere funtzioak betetzeko, zuzendariak beharko dituen irakastorduak hartu ahal izango ditu.

I-1.6 Zuzendari ordea

Zuzendari ordea eta zuzendariak elkar lagunduko dute, baita ikastolaren funtzionamenduari dagokionez eragin handia duten erabakiak hartzeko orduan ere.

Gestio lanetan ere .

Zuzendaria alde baterako ez badago, gaixotasunaren ondorioz, baimen ofiziala duelako edo indarrean dagoen araudian aitortzen diren beste arazoengatik, ikastolako zuzendaria zuzendariordeak ordezkatu du, eta zuzendariordeak ez dagoen kasuetan, ikasketa buruak ordezkatu du, funtzio guztietan eta ikasketa burua izango da bere kargua eta zuzendariarena, biak, beteko dituen, zuzendaria berriro ere bere zereginetara itzuli arte.

I-1.7 Ikasketa burua eta ikasketa buru ondokoa (Haietariko bat HH-LHkoa eta bestea DBHkoa)

1.- Ikasketa burua da curriculum-proiektua eta irakas-jardueren programa koordinatu eta gauzatzen direla zaintzeko ardura duen organoa.

2.- Ikasketa buruei ondoko **funtzio** hauek dagozkie, Deustuko Ikastolaren Zuzendaritza Taldeak onartutako irizpideen arabera:

- a) Irakaskuntzako jarduerak koordinatzea.
- b) Eskolako ordutegiak egitea eta betetzen direla zaintzea.
- c) Irakasle bakoitzari Deustuko Ikastolako gela bat edo gehiago izendatzea, Zuzendaritza taldeak finkatutako irizpideen arabera. Eta baita, dagokion kasuan, bakoitzari bere irakasgaiak izendatzea.

3. Ikasketa-buruek ondoko zereginak burutuko dituzte:

- Irakaslegoaren hutsegite eta baxak direla eta gertatzen diren bete gabeko lanpostuak betetzeko ezarri diren mekanismoak abiaraztea.
- Diziplina eta elkarbizitza-arazoetan esku hartzea, araudi honetan ezarritakoaren arabera.
- Ebaluazio eta orientabide-prozesuak koordinatzea.

4.- Pedagogi esparruaz arduratzen den Zuzendaritza-Taldeko kide gisa, Ikasketa buruen menpe egongo dira Koordinatzaileen Batzordea (HH-LH), Mintegi buruen bilera (DBH), Batzorde Pedagogikoa, Elkarbizitzarako Batzordea, irakas-taldeak eta hezkuntza-zerbitzuak. Aldizka, eta eskatzen dioten guztietan, organo hauen jardunen berri emango dio Zuzendaritza Taldeari. Irakas-taldeen arduradunengandik eta koordinatzaileengandik informazioa jasoko du lan-planei, beren buruzapenari eta erabakiei, eta talde desberdinek egiten duten lanari buruz.

5.- Deustuko Ikastolaren egoeraren eta talde desberdinek egiten dituzten ziklo desberdinen analisisian oinarrituta, Ikasketa-buruek, Zuzendaritza-Taldearen lankidetzaz, Urteko planean sartu beharreko berriazko berrikuntza edo prestakuntza-proiektuak izango dituzten gaiak proposatuko dituzte.

6.- Bere funtzioak betetzeko, Ikasketa-buruek beharko dituen irakastorduak hartu ahal izango ditu, zuzendariak zehaztuta.

I-1.8 Idazkaria

1. Idazkaria Ikastolaren kudeaketa administratiboaz arduratzen den organoa da.

2. Idazkariak ondoko funtzioak izango ditu:

- Deustuko Ikastolako I. Kontseiluaren, Batzorde Iraunkorraren, zuzendaritza-taldearen eta irakasle-klaustroaren bilkuretako gai-zerrendan sartu beharreko gaiak prestatzea, organo horietako buruak ezarritakoaren arabera, eta organo horien bilkuretako akta egitea.
- Aktak, espedienteak, ikasketa historiak eta Deustuko Ikastolaren beraren agiriak zaintzea, eta bertako organoen eskueran izatea.
- Testuliburuaren kudeaketa solidarioaz arduratzen den batzorde burua izatea, eta horren kudeaketaren kargu egitea.
- Deustuko Ikastolako irakas-baliabideak zaintzea.
- Zuzendariaren oneritziatz, Deustuko Ikastolaren egintza, erabaki, hitzarmen, aurrekin, liburu eta agiri guztiak egiaztatzea.

3. Administrazio-esparruaren arduradun gisa, idazkariaren menpe egongo da administrazio eta zerbitzu-tako eta eskola-zerbitzu-tako langilegoa.

4. Bere funtzioak betetzeko, idazkariak beharko dituen irakastorduak hartu ahal izango ditu, zuzendariak zehaztuta.

I-2 PARTAIDETZA ETA LANKIDETZA ORGANOAK

I-2.1. Ikasleek parte hartzeko organoak

Deustuko Ikastola I.P.I.an badira ikasleek parte hartzeko bi organo berezi: taldeko nahiz mailako ordezkariak, batetik, eta ordezkarien biltzarra, bestetik.

1. Taldeko ordezkariak

1.1. Ikasturtearen lehenengo hilabetean eta ikasturte osorako, ikasle talde bakoitzak bere ordezkaria aukeratuko du, zuzeneko eta isilpeko bozketaren bidez. Ordezkari hautetsi hori ikasleen Ordezkarien Batzordeko kide izango da. Ordezkariorde bat ere aukeratuko da. Ordezkariordeak ordezkariaren lekua hartuko du hura kanpoan denean edo gaixo dagoenean. Ordezkariordeak, halaber, laguntza eskainiko dio ordezkariari.

1.2. Ikasturteko ordezkariak eta ordezkariordeak aukeratzeko deialdia ikasketaburuak egingo du eta berak erabakiko ditu bozketarako arauak, beti ere artikuluko honetako 3. atalean zehaztutakoa errespetatuz, eta taldeetako tutoreekin nahiz IK-an ikasleen ordezkari direnekin elkarlanean.

1.3. Edonola ere, taldeko ikasle guztiak izango dira hautesle eta hautagai, kandidaturarik aurkeztu beharrik gabe. Bozketan, ikasle bakoitzak izen bat jarriko du boto-txartelean. Botorik gehien jaso duen ikaslea ordezkari izango da, eta boto gehien jaso dituen bigarrena, aldiz, ordezkariorde. Berdinketarik izanez gero, ikasleen ordezkari hautetsietan zaharrena izango da eta ordezkariorde hurrengoa.

1.4. Ordezkariak eta ordezkariordeak ezeztatu ahal izango dira, baina horretarako alde zuzenetik tutoreari txosten arrazoitua bidaliko zaio. Txosten horrek, ordezkaria zein ordezkariordea aukeratu zuten ikasleen gehiengo absolutuaren onespina izan behar du. Kasu horretan, hauteskunde berrietarako deialdia egingo da, hamabost eguneko epean eta aurreko atalean adierazitakoa kontuan hartuta. Onartu diren dimisioen kasuan modu berean jardungo da.

1.5. Ezin izango dira ordezkariak zigortu araudi honen arabera bete beharreko funtzioak bete izanagatik.

1.6. Hauek dira **taldeko ordezkarien funtzioak**:

- a) Ordezkarien Batzordearen bileretara joatea eta eztabaidetan parte hartzea.
- b) Aginte-organoei eta Koordinazio Didaktikorako Organoei ordezkatzeko duten taldearen iradokizunak eta kexak helaraztea.
- c) Bizikidetzaren sustatzea ikasturteko ikasleen artean.
- d) Ordezkatzeko duten taldearen funtzionamenduaren gain eragina duten gaiak tutorearekin eta gainerako irakasleekin lantzea.
- e) Irakasleekin eta ikastetxearen aginte-organoekin batera ikastetxearen funtzionamendu egokiaren alde lan egitea.
- f) Ikastetxeko materiala eta instalazioak behar bezala erabiltzen diren zaintzea.
- g) Ikastetxeko aginte-organoei, beren eskumenen barruan, esleitzen dioten funtzio oro.

2. Ordezkarien Batzordea

2.1. Ikasleek ikastetxearen kudeaketan parte hartzeko duten organoak, EEPLren 30. artikuluan aipatzen denak, ikasleen Ordezkarien Batzordea du izena.

2.2. Deustuko Ikastola IPIan ikasleen Ordezkarien Batzordea egongo da. Batzorde hori osatuko dute, batetik, taldeetako ikasleek libreki hautatu dituzten ordezkariak eta, bestetik, ikastetxeko OOGn ikasleen ordezkari aritzen direnak.

2.3. Ordezkarien Batzordeak funtzionamendurako bere arauak landuko ditu. Ikasketaburuak onartu ondoren, arau horiek indarrean sartuko dira, eta arau horiek baztertuko dira legez ezarritako arau baten aurka badoaz, araudi honetako legeen aurka badoaz edo ikasleen eta hezkuntza-komunitateko gainerako kideen eskubideen edo betebeharren aurka badoaz.

2.4. Edonola ere, ikastetxeko ikasleen artean dagoen aniztasuna eta Ordezkarien Batzordearen eraginkortasuna zaindu beharko dira.

2.5. Zuzendariak Ordezkarien Batzordeari bere bilerak egiteko leku egoki bat utziko dio, baita behar bezala funtzionatzeko behar dituen bitartekoak ere.

2.6. Ordezkarien Batzordeko kideek, beren funtzioak betetzean, Eskola kontseiluaren bilkuretako aktak kontsulta ditzakete, baita ikastetxeko administrazio-mailako beste edozein agiri ere, kasu batean izan ezik: dokumentazio jakin bat erabili edo hedatzearen ondorioz, pertsonen intimitatearen aurka doanean.

2.7. Hauek dira **Ordezkarien Batzordearen funtzioak**:

a) Ikastetxearen Hezkuntza Proiektua, Urteko Plana eta Urteko Memoria lantzeko proposamenak, baita eskola jardunaldia antolatzeakoak ere, zuzendaritza taldeari luzatzea.

b) IK-ko kasleen ordezkariari aholkularitza eta laguntza eskaintzea, baita talde edo ikasturte bakoitzak dituen arazoei buruzko informazioa ematea ere.

c) IK-ko ikasleen ordezkarien aldetik informazioa jasotzea, gai-zerrendari buruz, modu eraginkorrean aztertutako gaiari buruz eta Eskola kontseiluan hartutako akordioei buruz.

d) IK-rako txostenak egitea, bai ikasleen Ordezkarien Batzordearen berezko ekimenez bai IK-ak hala eskatuta ere.

e) AJA aldatzeko proposamenak egitea, beren eskumenen barruan.

f) Ikasleei Ordezkarien Batzordearen jarduerari buruzko informazioa ematea.

g) Ikastetxean jarduera osagarriak eta eskolaz kanpoko jarduerak garatzeko proposamenak egitea.

i) Ikasleengan eragin zuzena duen beste edozein jarduera edo erabaki

I-2.2 Gurasoen Batzarra

1. DEUSTUKO IKASTOLA IPIko Gurasoen Batzarraren bidez, gurasoek ikastetxearen kudeaketan parte har dezakete. Ikasle guztien gurasoek edo tutoreek osatuko dute organo hori. Zuzendariak egingo du biltzeko deialdia eta bera izango da bilkuraren buru; ikasturte bakoitzaren hasieran gutxienez behin bilduko da Gurasoen Batzarra, betiere, ez bada beste prozedura bat aukeratzen, artikuluko honen 2. eta 3. e) ataletan azaltzen den ahalmenean oinarrituta.

2. Gurasoen Batzarraren barruan beste organo bat egon daiteke, zuzeneko eta isilpeko botoaren bidez aukeratuko dena; barne-organok horrek Gurasoen Batzarraren bilerak antolatuko ditu eta Batzarrak hartutako erabakiak gauzatzen direla gainbegiratuko du.

3. Gurasoen Batzarrak honako funtzio hauek beteko ditu:

a) Egokitzat jotzen dituen proposamenak ikastetxeko gainerako organoetara luzatzea, organo horien eskumenekoak diren gaiei buruzkoak. Helarazi diezaieke, beraz, irakaskuntza-jardueren, prestakuntza-jardueren, eskolaz kanpoko jardueren eta jarduera osagarrien programa nahiz urteko kudeaketa-programa gauzatzearen balioespena.

b) Zuzendaritza taldearekin eta klaustroarekin kontaktuan egotea, ikastetxearen hezkuntza-proiektuaren garapenean ahalik eta lankidetzaren handiena lortze aldera.

c) Gurasoen ekimena sustatzea, ikastetxearen bizitzan aktiboki parte har dezaten.

d) Taldeko organoetan gurasoen ordezkari direnak Gurasoen Batzarraren bilkuretara agertzeko eskatzea, egindako kudeaketari buruzko informazioa eman dezaten.

e) Funtzionamendurako bere arauak onestea.

I-2.3 Gurasoen Elkarteak

1.- Gurasoen Elkarteak (GE) gurasoen borondatezko partaidetza eta lankidetzaren organoak dira.

2.- Gurasoen Elkarteak indarrean dauden arauen arabera eratuko dira eta Kontseiluak onartu beharko ditu.

3.- Elkarteek ondorengo esparruotan jardun dezakete:

- Gurasoen Batzarreko organo exekutiboetan.
- Kontseiluak sortutako Lan Batzordeetan.
- Guraso eta ikasleen defentsan, baldin eta eskubideak zapaldu edo betebeharrak bertan behera utzi direla ulertzen bada.
- Urteko Planaren programetarako proposamenak aurkeztuz, batez ere jarduera osagarrien eta eskolaz kanpoko programarako.
- Jarduera osagarrien eta eskolaz kanpoko programaren burutzapenean, eta eskola-jardueretan, gurasoen eta irakasleen arteko lankidetzan.
- Gurasoen informazioan eta prestakuntzan.
- Legez dagokion edozeinetan.

4.- Gurasoen Elkarteak Ikastolako Kontseiluari eta Zuzendaritzari burutzen dituen jardueren berri emango die beharrezkoa ikusten denean.

5.- Gurasoen Elkarteak Deustuko Ikastolako lokalak erabiltzeko eskubidea dauka bere jarduerak burutzeko, baldin eta ez badu eskolako jardun normalean eragozpenik sortzen. Zuzendaritzak beharrezko lokalak eskainiko ditu Deustuko Ikastolak dituen aukeren baitan, Elkarteak bere beharren berri eman ondoren.

I-3 PEDAGOGI KOORDINAZIORAKO ORGANOAK

I-3.1 Irakasleria

1. Irakasleriari dagokio:

a) Irakas-jardueren programazioa landu, garatu eta ebaluatzea, Deustuko Ikastolaren Curriculum-Proiektuaren arabera.

b) Ikasleen tutoretza bere gain hartzea, ikasleen ikaskuntza eta aukera akademiko eta profesionalei orientabidea emateko.

c) Esleituta dauzkan irakas-taldeetan parte hartzea, ekintza koordinatua eta eskola-testuingurura egokitua definitu eta lortzeko.

d) Deustuko Ikastolaren Urteko Planean parte hartzea eta bertan sartzen diren berariazko proiektuetan laguntzea dagokion neurrian, eta baita Deustuko Ikastolaren eta irakaslegoaren irakas-jardunaren ebaluazioan laguntzea ere.

e) Prestakuntza-jardueretan aktiboki parte hartzea, Hezkuntza Sailak eta Deustuko Ikastolako aginte-organismoek ezartzen dituzten baldintzetan.

f) Bere esku uzten diren kargu eta funtzioak betetzea.

g) Deustuko Ikastolaren antolaketa- eta funtzionamendu egokirako laguntza ematea, Ikasketa buruaren eta antolakuntza eta jarduera-araudian zehazten diren beste arduradunen koordinaziopean.

h) Klaustroaren bilkuretara eta pedagogi koordinaziorako organoetara joatea, eta halaber taldeko aginte-organoei, horretarako hautatua izan bada.

i) Izaera orokorraz, Hezkuntza Sailak ezartzen dituen arauak edo Deustuko Ikastolako aginte-organoei ezartzen dituztenak betetzea.

2. Irakasleek, berez irakaskuntzari dagozkion zereginez gain, Araudi honek xedatutakoari eta Urteko Planean onartutako urteroko antolaketari jarraiki, ondoko berariazko funtzioen bat bete ahal izango dute:

a) zuzendaritza-funtzioa

b) tutoretza-funtzioa

c) irakas-taldeen ardura

d) hezkuntza eta eskola-zerbitzuen ardura

I-3.2 Tutoretza-funtzioa

1. Ikasleek erreferentzia-talde bat osatuko dute, eta honi tutore bat esleituko zaio. Zuzendaritza-taldeak, Irakasle-Klaustroari entzun ondoren, talde bakoitzaren tutorea izendatuko du. Tutorea berbera izango da zikloan zehar, legeak aurrikusitako kasuetan eta Zuzendaritza-Taldeak hala erabakitzen duenean ezik.

2. Tutoreari ondorengo **funtzioak** dagozkio:

a) Ikasleen ikaskuntza orientatzea.

b) Gurasoei beren seme-alabek parte hartzen duten ikas-jardueren, hezkuntza-prozesuaren eta aurki ditzaketen eragozpenen berri ematea.

c) Irakas-taldeak onartutako tutoretza plana garatzea.

- d) Ikasleei euren taldean eta eskola bizitzan integratzen laguntzea eta parte hartze jarrerak bultzatzea beraien artean.
- e) Ikasleek ikasteko dituzten arazo orokorrenak konpontzen laguntzea eta, ahal den neurrian, aurrea hartzea -programazioan dagozkion egokitzapenak eginez-; halaber, banakako hezkuntza-premiei erantzuten laguntzea eta, egokitzat joz gero, curriculum-egokitzapenak egitea.
- f) Programazioaren, irakas-jardueraren, curriculum-proiektuaren eta ikastolaren urteko programazioaren arteko koherentzia koordinatzea, taldeko gainerako irakasleekin batera.
- g) Laguntza irakasleekin eta, hala badagokio, Konsultaria edo Orientatzailearekin batera, hezkuntza premia bereziak dituzten ikasleen curriculum egokitzapenak eta hezkuntza esku-hartzea koordinatzea.
- h) Ikasleen ebaluazio prozesua koordinatzea eta, gainerako irakasleen txostenak kontutan izanik, ziklo batetik bestera igarotzeko erabakia hartzea.

3. Tutoreari dagozkio ondoko zereginak:

- Tutoretza eta orientabide-plana garatzea, taldearekin eta ikasle bakoitzarekin.
- Ikasle bakoitzaren jarraipena egitea, taldean parte hartzen duten irakasleengandik informazioa jasotzea eta ikasle bakoitzaren espediente pertsonala betetzea.
- Laguntza/Orientabide-Zerbitzuaren aholkularitzaz, behar dituzten ikasleentzat hezkuntza-indargarriak eta curriculum-egokitzapenak ezartzea eta hauek praktikan jartzen ote diren begiratzea.
- Taldean-gelan beharrezkoa ikusten denean parte hartzen duten irakasleei deialdia luzatzea taldearekiko beren jarduna koordinatzeko eta, derrigorrez hiruhileko bakoitzaren bukaeran, ikasleen ebaluazioari ekiteko eta taldean sortzen diren egoerak aztertzeko.
- Asistentziarik eta puntualtasunik ezak kontrolatzea eta halaber diziiplina-hutsegiteak ere, dagokien oharra guraso edo tutoreei luzatuz.
- Ikasleei eta hauen familiei, ikasturtearen hasieran, helburu, eskola-programa eta ebaluazio-irizpideen berri ematea; urtean zehar, hezkuntza-prozesuei eta ebaluazioei buruzko informazioa ematea.
- Ikasleen guraso edo tutoreez arduratzea, Araudi honetan aurriztutako den moduan.

4. Irakas-jardueren programan, ikasleen guraso edo tutoreekin bilera informatiboak burutuko dira. Bilera hauek familia gehienek ahal izaten duten orduetan egingo dira ikasturtearen hasieran.

5. Ordutegi bat finkatuko da guraso eta tutoreekin elkarrizketak edukitzeko. Ezarritako ordutegian agertzerik ez balute, elkarrizketa bat eskatu ahal izango dute aurretiaz nahiko denboraz, tutoreak une egoki bat proposatu ahal izan dezan. Tutoreak guraso edo tutoreei deialdia egin ahal izango die ikasle baten eskola-jardunaz hitzegiteko.

6. Tutorea astean ordubete egongo da taldearekin, tutoretza-plana burutzeko.

I-3.3 Irakas-taldeak

1. Irakasleriak lan koordinatua egingo du, eta horretarako irakas-taldeetan antolatuko da. Deustuko Ikastolako irakasle guztiek gutxienez irakas-talde bateko kide izan beharko dute.

2. Urtero, irakas-jardueren programa lantzerakoan eta onartzerakoan, Deustuko Ikastolan funtzionatuko duten irakas-taldeak, hauen kideak eta funtzionamendu-erregimena (bilerak zenbatero egingo diren, lanerako plana, informazioa eta beste taldeekiko harremanak...) finkatuko dira.

I-3.3.1 Ziklo/mailako taldeak

1. Zikloa/kurtsoa eskola-curriculum antolatzen den denborazko unitatea da, eta berezko helburuak, edukinak eta ebaluazio-irizpideak ditu, Deustuko Ikastolaren Curriculum-Proiektuaren arabera.

Haur eta Lehen Hezkuntzan

2. Ziklo batean esku hartzen duten irakasle guztiek zikloko taldea osatzen dute. Irakasle batek ziklo desberdinetako taldeetan ematen baditu eskolak, ziklo horietako batera adskribatuko da, eskatzen zaionean beste ziklo bateko taldean parte hartu ahal izango badu ere.

Irakas-zereginen banaketan, lehentasuna emango zaio zikloan ahalik eta irakasle gutxienez esku hartzeari eta irakasle bakoitzak ziklo bakarrean edo segidan dauden zikloetan eskolak emateari.

3. Zikloko taldeak irakaslegoaren oinarrizko koordinazio-modua dira. Taldeok zikloko eskola-jardueren programazioari eta koordinazioari buruzko erabakiak hartzeko ahalmena dute, Curriculum-Proiektuaren eta Koordinatzaileen Batzordearen esparruaren baitan.

4. Zikloko talde baten zereginak ondokoak dira:

a) Ziklo/mailako taldeen egoera akademikoa aztertzea, beren behar orokorrak antzematea eta berauei erantzuna ematea.

b) Ziklo, kurtso eta hau banatzen den aldi bakoitzaren helburuak, edukinak eta ebaluazio-irizpideak finkatzea.

c) Zikloko jarduera orokorrak, ebaluazio-bilkurak eta jarduera osagarrien burutzapena antolatzea.

d) Taldeen tutoretza-jardunak eta familientzako informazio orokorra prestatu eta koordinatzea.

e) Laguntza-Zerbitzuarekiko harremanak edukitzea.

f) Berrikuntza-Proiektuak edo zikloarekin zerikusia duten antzekoak koordinatzea.

g) Koordinatzaileen Batzarra eta Batzorde Pedagogikoaren proposamenak aztertu eta berauei erantzutea; era berean, Batzorde honetara proposamenak igortzea, dagokion organoan azter daitezen.

5. Zikloko taldeak hilean birritan bilduko dira, urteroko irakas-jardueren programan finkatutako lanerako plana burutzeko. Urteko lanerako planean sartzen diren zereginenez gain, zikloko taldeek ondoko zeregin hauek beteko dituzte:

- Ikasturtearen hasieran, helburuak, programa eta ebaluazio-irizpideak, elkarri informazioa emateko bideak eta ikasleei Deustuko Ikastolatik kanpo egiteko eman dakizkiekeen lanei buruzko irizpideak zehaztea.
- Ebaluazioaldi bakoitzean, ikasleen eta taldearen egoera akademikoa aztertzea, beren hezkuntza-beharrak antzematea eta berauei erantzutea.

6. Zikloko talde bakoitzak Koordinatzaile bat izango du; ikasturtearen hasieran kideen artean eta berauek hautatuko dute eta zuzendaritzari honen izendapena proposatuko diote.

7. Astean behin ziklo koordinatzaileek osatzen duten batzordea bilduko da ikasketa buruarekin batera.

8. Zikloko Koordinatzaileari ondorengo **funtzioak** dagozkio:

- a) Curriculum-proiektuarekin eta Ikastolako urteko programazio orokorraren arabera, dagokion zikloko irakaskuntza koordinatzea.
- b) Zikloko ebaluazio-prozesua koordinatzea.
- c) Zikloko ordezkari gisa Koordinatzaileen Batzordean eta Batzorde Pedagogikoan parte hartzea.
- d) Zikloko bilkuren gai-zerrenda prestatzea, ondorioak eta akordioak jasotzea eta betetzen ote diren begiratzea.
- e) Ikasketa-Buruari irakaslegoaren hutsegiteen eta eskolako elkarbizitzako gorabehera nagusien berri ematea.
- f) Aztertu diren gaiak eta hartu diren erabakiak jasotzen dituzten bilkuren aktak egitea. Era berean, zikloko taldeak lantzen dituen dokumentuak eta materialak eta zikloan normalean erabiltzen diren baliabide didaktikoak ziklorako jaso eta edukitzea.
- g) Ikasketa buruak agindu diezazkion gainerako egitekoak.

9. Zikloko Koordinatzaileek lehentasuna izango dute, Zuzendaritza-Taldearen ondoren, ordu-banaketan beren zereginak egin ahal izateko denbora edukitzeko.

I-3.3.2 DBHko Departamentu didaktikoak

1. Departamentu didaktikoak irakasleek osatzen dituzten irakas-taldeak dira, arlo edo gai baten curriculum-a garatzeko, curriculum-materialak eta ebaluazio-tresnak lantzeko edo guztien interesa duten gaiak aztertzeko. adibidez aniztasunaren trataera, tutoretza, zeharlerroak...

2. Departamentuek staff izaera dute, eta eztabaida-funtzioak dituzte, ez erabakitzaileak. Beren proposamenak, kasuan kasu, Zuzendaritza-Taldeak, Mintegi buruen Batzordeak edo Batzorde Pedagogikoak berresten dituztenean soilik izango dira lotesleak.

3. Departamentuen **funtzioak** ondokoak izango dira:

- a) Deustuko Ikastolaren Curriculum-Proiektuaren garapenerako eta/edo aldakuntzarako proposamenak lantzea.
- b) Arlo edo gai baten programazioa garatzea, Curriculum-Proiektuaren arabera, ziklo baterako edo batzuetarako, baliabide didaktikoak eta/edo ebaluazio-tresna egokiak garatzea.
- c) Eskola-testuinguruko edo arlo bateko arazo orokorrak direla eta, irakatsi eta ikasteko prozesuan sortzen diren eragozpenak aztertzea, hauek hezkuntza eta prestakuntza-berrikuntzaren bidez gainditu ahal izateko.

4. Irakas-jardueren programan, Urteko **P**lanean sartzen diren Proiektuak burutzeko ikasturtean zehar funtzionatuko duten Departamentuak zehaztuko dira, eta beren lanerako plana finkatuko da.

5. Departamentuetara, burutu beharreko proiektuan esku hartuko duten irakasleak adskribatuko dira, eta ezin izango dute Departamentu bat baino gehiagotan parte hartu.

Departamentu bakoitzak taldearen koordinazio-funtzioak beteko dituen arduradun bat izango du. Lan zamak hala eskatzen duenean, eta Deustuko Ikastolak horretarako gaitasunik baduenean, irakastorduetatik ordu batzuk kenduko zaizkio.

6. Departamentuak astero bilduko dira, lanorduetan, finkatutako orduan. Irakasgai/arloei dagozkien Departamentuak ikasturtearen hasieran bilduko dira, kurtso desberdinetako urteko curriculumak, lehen ebaluazioaldian praktikan jarriko dena, zehazteko; ebaluazio-bilkura bakoitzaren ondoren, emaitzak aztertu eta hurrengo irakastaldia programatzeko.

7. Departamentuaren arduradunaren **funtzioak** ondokoak izango dira:

- a) Departamentuaren lana zuzentzea eta koordinatzea.
- b) Bilerak antolatzea eta zuzentzea.
- c) Programaketaren edukinak eta gutxienezko exigentzia-maila bete daitezela arduratzea, ohizko bideetatik kurtsoa gainditu ez duten guztientzako ohiko eta ezohiko froga berdintsuak segurtatuz.
- d) Departamentuak egindako ohiko eta ezohiko frogen kalifikazioa ikuskatzea.
- e) Departamentuko kideen lanak banatzea.
- f) Departamentuan gertatzen den edozein oker ikasketa-buruari adieraztea.
- g) Bileretako agiriak egiten direla bermatzea.
- h) Batzorde Pedagogikoan parte hartzea.

I-3.4. Batzorde Pedagogikoa

1. Ikastola osoko koordinazio pedagogikoa egiteko Batzorde Pedagogikoa osatuko da.

2. Batzorde honen partaideak honako hauek izango dira:

- Ikasketa burua eta Ikasketa buru ondokoa
- Ziklo koordinatzaileak (HH, LH1, LH2, LH3)
- DBHko Departamentu buruak
- Kontsultorea
- Orientatzailea (Orientazio Departamentua eratuta ez egotekotan)

3. Batzorde honek ondoko **funtzioak** izango ditu:

- a) Ziklo eta Mintegien proposamenak jasotzea.
- b) Deustuko Ikastolaren **Curriculum-Proiektuaren eta irakas-jardueren Programaren lanketa** martxan jartzea eta ebaluazioa koordinatzea, Klaustroaren proposamenaren arabera, Klaustroari aurkeztuko baitizkio ones ditzan.
- c) **Zikloen eta arloen irizpide** komunak **finkatzea** eta ziklo desberdinei dagozkien **j**arduerak koordinatzea.

- d) Prestakuntza-jardueren eta **j**arduera Osagarrien eta Eskolaz Kanpokoan Programa lantzeko ardura duen Batzordeari irakasle**ri**ak gai hauei buruz dituen proposamenak aurkeztea.
- e) Batzordearen proposamenak Ziklo edo Mintegietara bidaltzea.
- f) Aginte-organoei egotzen dizkietenak.

4. Batzorde Pedagogikoaren erabaki**e**k operatiboak izan beharko dute Deustuko Ikastolako aginte-organoei hartutako erabakiak praktikan jartzeko. Egokitzat jotzen dutenean, aipatu organoei eztabaidatzeko eta erabakitzeko proposamenak igorri ahal izango dizkiete.

5. Batzorde pedagogikoa **gutxienez hilean behin bilduko da**, eta Ikasketa buruak horretarako deialdia egin edo kideen herenak eskatzen duen guztietan.

I-3.5. Hezkuntza-zerbitzuak

Deustuko Ikastolako hezkuntza zerbitzuak **Laguntza Zerbitzua** eta **Orientabide Departamentua** dira.

Hezkuntza-zerbitzuok ikasleriari zein irakasleriari laguntza ematean dute xedea. Horretarako Ikastolaren Curriculum Proiektua eta Hezkuntza proiektua garatzen ahaleginduko dira.

Ikastolako Ikasketa-buruak zuzendaritzapean arituko dira, eta beharrezko jotzen denean Zuzendaritza-Taldeari eta Ikastola Kontseiluari bere lanaren berri emango diete.

a) Laguntza-zerbitzua (HH-LH)

Laguntza-Zerbitzuaren burua irakasle aholkularia da eta dagokionean Pedagogia Terapeutikoko irakasleekin, Entzumen eta Mintzamen irakasleekin eta Hizkuntza indartzeko irakasleekin batera osatuko du hezkuntza zerbitzu hau.

Laguntza-Zerbitzua hiruhilean behin bilduko da gutxienez. Entzun egin beharko zaio, irakas-jardueren programan aniztasunaren eta hezkuntza-premia berezien laguntzaren antolaketa eta gai hauei buruzko berriak proiektuak martxan jarri aurretik, eta Berritzegunera curriculum-egokitzapen esanguratsuak edo aparteko baliabideak dituztenak egiteko eskaera igorri aurretik.

Irakasle aholkulariaren eginkizun nagusia tutore eta gainontzeko irakasleei aholkuak ematea da, hezkuntza-beharrizan bereziei erantzun egokia emateko. Bere eginkizun horrek lehentasunezko ekintza positiboko hastapenari jarraituko dio, beti laguntzaren beharrik handiena dutenen alde.

Irakasle aholkulariak ondoko funtzioak beteko ditu:

- Tutoreari zailtasunak identifikatzen laguntzea, baita arrakasta emango dioten estrategiak zehazten laguntzea ere.
- Irakasle tutoreei banakako curriculum-egokitzapenak egiteko laguntza eta aholkularitza ematea.
- Gelan tutoreekin elkarlanean esku-hartzea, gelan bi profesional gisa jokatzuz, edo talde malguak egiteko momentuan, beste irakasle bat bezala jokatzuz.
- Irakasle tutoreei etengabeko ebaluaketa egiten laguntzea, bai ikasleena nahiz hezkuntza testuinguruarena ere.
- Hezkuntza-premia bereziak dituzte ikasleei banakako arreta ematea, bai inguru arruntak elkarbanatuz edo haienzako inguru zehatzak sortuz.

- Tutoretza-lanen, aniztasunarekiko arretaren eta hezkuntza-premia berezien lanetan, berrikuntza- eta prestakuntza-programak sustatu eta koordinatzea.
- Ikastetxeko Batzorde Pedagogikoarekin lankidetzaz izatea, proposamenak eta jarduteko planak aurkeztuz.

Irakasle aholkulariaren jardunaldia hiru esku-hartze esparrutan banatuko da: Ikastetxeko irakasleekin egindako esku-hartzetan aholkularitza ematea; gelako inguru arruntean lankidetzarako esku-hartzeak egitea, ikasleei hezkuntza-laguntza emateko eta hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleei banakako arreta eta laguntza ematea. Azken lan horretan 7 ordu arituko da gehienez.

Irizpide hauek errespetatuz, Zuzendaritza-Taldeak, dauden beharrak eta baliabideak kontuan hartuta, urtero irakasle aholkulariaren lanerako plana zehaztuko du.

Pedagogia terapeutikoko irakasleek ondoko eginkizunen ardura dute:

- Beharrizan bereziak dituzten ikasleei laguntzea, banan-banan edo talde txikietan, ohiko ikasgelan edo laguntzakoan, curriculum egokituetako edo banakako lan-planetakoa gaiak lantzeko.
- Tutore, aholkulari, orientatzaile eta talde multiprofesionalarekin batera lan egitea, eskatzen zaion bakoitzean, beharrizan bereziak dituzten ikasleen curriculum-balorazioa egiteko.
- Behar balitz, aholkulari edo orientatzaile eta tutorearekin batera beharrizan bereziak dituzten ikasleen banakako curriculum-egokitzapenak egin eta garatzea, eta horien ikasmaterialak sortzea.
- Beharrizan bereziak dituzten ikasleen familien eta tutorearen arteko harremanetan laguntzea.

Entzumen eta mintzamen irakaslearen eginkizuna (ALE):

- Tutore eta aholkulari edo orientatzailearekin batera, ikasleen mintzameneko arazoak aurkitzea.
- Talde multiprofesionalarekin lan egitea, entzun eta mintzatzeko zailtasunak dituzten ikasleen diagnostiko psikopedagogiko berezia egiteko.
- Irakasle, logopeda eta talde multiprofesionalarekin ados jartzea, entzun eta mintzatzeko zailtasunak dituzten ikasleen ebaluazioa egiteko eta dagokien hezkuntza-plana sortu eta ikuskatzeko.
- Talde multiprofesionalarekin batera, curriculum-egokitzeko irizpideak erabakitzea.
- Irizpide horien arabera, mintzamina zuzentzeko programa sortu, landu eta martxan jartzea, egoerarik larriena duten ikasleei lehentasuna emanaz.

Hizkuntza indartzeko irakaslearen eginkizuna (HIPI)

- Hizkuntza indartzeko gelako programazioa egitea, ikasleen beharretara egokitua.
- Ikasle horientzat banakako esku-hartze plana egitea, tutorearen laguntzarekin.
- Ikasleak zein diren jakitea eta taldetan biltzea.
- Material didaktikoak aztertzea, antolatzea eta prestatzea, ikuspegi egokiak erabiliz.
- Dagokion hezkuntza-errefortzua ematea.

Hizkuntza indartzeko irakasleak eta iritsi berri den ikaslearen tutoreak honako funtzio hauen ardura partekatua izango dute:

- Gainerako irakasleekin koordinatzeko prozesua ezartzea, lanerako plan pertsonala prestatzeko eta plan horren gauzatzearen jarraipena egiteko.
- Iritsi berri diren ikasleen harrera eta integrazioa erraztea, haien gaitasunak garatu ditzaten laguntzea, eta ikastetxeko jardueretan parte har dezaten sustatzea.
- Ikasleen aurrerapenen eta ikaskuntzen ebaluazioan parte hartzea.
- Materialak eta edukiak egokitzea, zikloko eta etapako curriculumaren ikuspegia aintzat hartuta.

b) Orientabide-Departamentua (DBH)

Orientabide Departamentuaren burua Orientatzailea da eta DBHko Pedagogia Terapeutikoko irakasleekin osatzen du zerbitzu hau.

Orientabide-departamentuaren eginkizun nagusia ikastetxeko beste irakasleak –batez ere tutoreak–, koordinatzea, eustea eta beren galderak erantzutea da; eskola-, pertsona- eta lanbide-aholkularitzaren eremuan eta ikasteko zailtasun eta ikasleen nortasunaren esparruan ere arituko da. Ekintza ugaritan agertuko da: ikasle desberdinak nola tratatu erabaki behar denean, edo hezkuntza-errefortzu gisan, edo curriculumak egokitzen direnean edota, azkenik, orientatzeko aholkuak beharrezkoak direnean.

Orientatzailearen egitekoak:

- Ikastetxeko Orientabide Plana eta Tutoretza Plana egitean parte hartzea, Zuzendaritza Taldearen ikuskaritzapean.
- Aholkuak ematea eta koordinatzea irakasleak tutoretza lanetan, tutoreekin jardunez taldean zein banaka. DBH-ko 4. mailako tutoreekin orientabide lan sakonagoa egingo da, kurtso horretako ikasleei orientabide akademiko-profesionala emateko.
- Ikastetxeko Batzorde Pedagogikoarekin lankidetzaz izatea, proposamenak eta jarduteko planak aurkeztuz departamentu didaktiko desberdinak eta irakasle taldeak koordinatzeko.
- Taldeko tutorearekin eta irakasle taldeekin aztertzea ikasleek ikasteko dituzten zailtasunak eta aholkuak ematea hezkuntza indartzeko neurri eta, hala badagokio, curriculum egokitzapen egokienei buruz.
- Bere gain hartzea ikastetxeko ikasleen orientabide pertsonal, akademiko eta lanekoa arreta pertsonalaren bidez edota taldeetako jarduerak diseinatuz.
- Ikastetxean sortu ahal diren jokabide eta elkarbizitza arazoei aurre hartu eta konponbidea ematen laguntzea, Bitartekaritza taldeko partaidea izanda.
- Egotekotan, Curriculum anitzeko gela, zereginen ikaskuntzarako gela eta hezkuntza premia bereziko ikasleei arreta emateko gela jarraipena egitea.

I-3.6. Eskola-zerbitzuak

Deustuko Ikastolak honako zerbitzu hauek ditu: Jantokia, Haurtzaindegia eta Psikologoa.

Zerbitzu hauek Guraso Elkartearen esku daude eta berak kudeatzen ditu. Hala ere, Jantokiaren Batzordea eratuko da ikasleriaren asistentziaz eta jarreraz, zaintzaileek behar bezalako arreta eskaintzeaz, otorduen kalitateaz eta osasunagatiko zaintza berezia behar dutenen egoera bereziaz arduratuko dena. Batzorde hau honako kide hauek osatuko dute:

- Zuzendaritzako kide batek
- 3 gurasok
- 3 irakaslek
- Jantokiko enpresako kide batek
- Jantokiko langile batek
- Ikasle batek

II- DEUSTUKO IKASTOLA IPI-KO KUDEAKETA-TRESNAK

II-1.1. Epe ertaineko proiektuak

1. Hezkuntza-Proiektua.

Bakarra izango da ikastetxe osorako, nahiz eta bertan etapa bat baino gehiago egon. Batzar Akademikoak landuko du eta proposamena IK-ri pasatuko dio, berak ones dezan.

2. Curriculum-Proiektua.

Irakasle Klaustroari dagokio lantzea, lanketa hori Batzorde Pedagogikoak koordinatuko duenari.

3. Kudeaketa-Proiektua.

Batzorde Ekonomikoak landuko du eta IK-ak onetsiko du.

4. Hizkuntza-Proiektua.

Ikastetxean hizkuntzak ikasi eta erabiltzeko alderdi guztiak jaso behar ditu, ikastetxearen hizkuntza-testuingurura egokitua. Hizkuntzak nola irakatsiko eta erabiliko diren finkatuko du eta zehaztu zer-nolako trataera izango duten hizkuntzek Curriculum-Proiektuan, bereziki Euskeraren normalizazioa.

Hizkuntza-normalizaziorako proiektua ikastetxeko hizkuntza-proiektuaren atala izango da.

Agiri horretan jasotako erabakiek zuzenean eragingo dute ikastetxeko beste agiri batzuetan: AJAn, Urteko Planean, ...

II-1.2. Epe laburreko proiektuak

1. Urteko Plana

Zuzendaritza-taldeak koordinatu behar ditu ikastetxearen urteko plana gauzatzeko lanak eta Kontseiluak onartu beharko du.

Ikastetxeak Urteko Plana egingo du ikasturte hasieran, ikastetxeko jarduerak planifikatzeko, antolatze eta kudeatzeko baliagarria izango dena.

Plan horrek ondoko hauek bilduko ditu bere baitan:

- a) Irakas-jardueren programa
- b) Prestakuntza-jarduerak, eskolaz kanpokoak eta osagarriak.
- c) Urteko kudeaketa-programa

Horiez gain, Ebaluazio Diagnostikaren ondoren proposatutako Hobekuntza Planak ere bertan agertu behar du.

Urteko Plana labur eta zehatz egingo da, ikastetxean bertan erraz erabili ahal izateko.

2. Urteko Memoria

Zuzendaritza-taldeak koordinatu behar du memoria idazteko lana. Ikastetxearen Urteko Plana zenbateraino bete den aztertuz eta lortutako eskola-eraketak aintzat hartuz ikastetxeak autoebaluazioa egingo du; hau da, ondorioak atera eta hurrengo ikasturterako hobekuntza-proposamenak egingo ditu, eta horrez gain, lehentasun batzuk jarriko ditu, ikastetxearen hurrengo planean helburutzat hartuko direnak.

Urteko Memoria Ikastolako Kontseiluak onartu behar du, eta kopia bat ikastetxeko idazkaritzan jasoko da Hezkuntza Ikuskaritzaren eskura egoteko.

Urteko Memoria labur eta zehatz egingo da, ikastetxean bertan erraz erabili ahal izateko.

II-2. Testuliburuaren Kudeaketa Solidarioa

Testuliburuaren eta Curriculum-materialen Kudeaketa Solidarioaren Programa garatzeko, Testuliburuaren Batzordea eratuko da honako kide hauek izango dituela:

- IK-ko lehendakaria edo berak eskuordetzen duen beste pertsona.
- Ikastetxeko idazkaria, batzordeko idazkari lanak beteko dituen.
- Ikasleen gurasoen bi ordezkari. Horietako batek IK-ko kidea izan behar du eta organo horrek proposatuta aukeratu behar da; bestea, berriz, Ikasleen gurasoen Elkarteak proposatuta aukeratu behar da.
- Lehen Hezkuntzako ziklo-koordinatzaileak eta Bigarren Hezkuntzakoak.

Batzorde horren funtzioak honako hauek izango dira:

- a) IK-ri bidaltzea Batzorde Pedagogikoak prestatu duen zerrenda, hau da, testuliburuak eta materialak osatutakoa, ikastetxeko maila bakoitzean erabiliko dituenak.
- b) Testuliburuak eta materialak eskuratzeko prozedura eta lekuak proposatzea. Guraso Elkarteak hala eskatzen badu, Batzordeak euren esku utz dezake aipatutako prozeduraz arduratzea.
- c) Materialak erabiltzeagatik familiek egin ditzaketen ekarpenei buruz indarreko legerian ezarritakoa betetzen dela kontrolatzea.
- d) Uko egite indibidualak jasotzea.
- e) Programaren helburuak betetzea, ebaluatzea eta IK-ri hobekuntzak proposatzea.
- f) Programako materialak babesteko eta zaintzeko, erregistratzeko eta identifikatzeko eta urtero berrikusteko prozedura zehaztea.

Programa honela antolatuko da:

- a) Ikasturte bakoitzaren amaieran Ikastolako idazkaritzatik eskutitza bidaliko zaie familiei, hurrengo ikasturtean programan sartzeko zein den bakoitzak egin behar duen ekarpena zehaztuz.
- b) Guraso Elkartearen Kontu korrante zehatz batean familiek sartuko dute dirua. (Guraso Elkarteak proposatutako Testuliburuaren Batzordekidea arduratuko da horren kontrolaz)
- c) Ziklo eta Departamentuetan proposatutako testuliburu eta materialen zerrenda egingo da, beharrezkoa den aleen kopurua zehaztuta. (Kontuan eduki behar da

errepikatzaileen kopurua, egokitzapena duten ikasleak eta berez hondatutako liburuena)

- d) Guraso Elkarteak eskatzen badu, testuliburu eta materialen eskuratzeko prozeduraz eta lekuez ardura daiteke. Bestela, Ikastetxeko idazkaria arduratuko da.
- e) Testuliburuak eta Curriculum-materialak ikastetxera heltzen direnean, tutoreek horren ardura hartuko dute. Banatuko dituzte haien ikasleen artean, bakoitzak zein ikasleari dagokion erregistroa izango duela.

Testuliburu eta Curriculum-materialen erabilera eta zaintzari buruz honako arau hauek izango dira kontuan:

- a) Ikasleen esku utzitako materialak ikaslearen ardurapean gelditzen dira. Hori dela eta, ikasturte hasieran forratu beharko ditu . Ondo zaindu beharko ditu eta bertan ezingo dela idatzi edo testua azpimarratu kontuan izango du.
- b) Ikasturte amaieran, tutoreak bere ikastaldearen esku gelditzen diren liburuak edo materialak ikuskatuko ditu, ondo dauden ala ez jakin ahal izateko . Ikaslearen erruz testuliburu edo materialen bat egoera txarrean balego, ikasleak berria ekarri beharko du. Horretarako, tutoreak oharra bidaliko dio familiari eskaera eginez.
- c) Ikasleak testuliburu edo materialen bat galduko balu, aurrekoan bezala jokatuko da.

II-3. Dokumentazio akademikoa

1. Ikasle bakoitzak oinarrizko eta derrigorrezko dokumentuak artxibatuko direla bermatzen duen dokumentazio pertsonala edukiko du. Aipatutako dokumentazioaren barruan honako dokumentu hauek izango ditu:

- a) Ikaslearen Matrikulazio orria
- b) Ikaslearen Espediente Akademikoa
- c) Txostenak
- d) Ebaluazio Indibidualduari buruzko Txostenak
- e) Ebaluazioaren Azken Txostena
- f) Curriculum-Egokitzapenak, baldin eta baleude.
- g) Gurasoak bananduta izatekotan, dokumentazioa birritan jasotzeko eskaera.
- h) Beste dokumentuak (webgunean ikaslearen argazkiak atera ahal izateko baimena, adibidez)

2. Ikasle bakoitzak bere Ikasketa Historia izango du, Ikastetxean gordeko dena bertan dagoen bitartean. DBH bukatzean ikasleari emango zaio. Hala ere, Ikaslea Bigarren Hezkuntza amaitu aurretik ikastetxetik joango balitz, Ikasketa Historia ikastetxe berriari igorriko litzaioke bertako arduradunek eskatu ondoren. Era berean, ikastetxera ikasle berria baletor, jatorrizko ikastetxeari eskatuko litzaioke Ikasketa Historia.

3. Dokumentu hauek gordetzea eta artxibatzea idazkariari dagokio. Jasotako informazioa pertsonen intimitaterako eskubideak babesten du eta, beraz, ezin izango dira berez hezkuntzazkoak ez diren helburuetarako erabili.

Irakasleek ezingo dute dokumentazioa idazkaritzatik atera, baina , bertako mahaian kontsulta dezakete beharrezkoa izanez gero.

Kasu berezietan, zuzendariari edo idazkariari baimena idatziz eskatu ondoren eta behin eskaera hori onartuta, dokumentazioaren fotokopia atera daiteke.

II-4 Ekonomia kudeaketarako tresnak

1. Ekonomia kudeaketarako ondoko tresnak erabiliko dira:

- Ikastetxeko baliabideen inbentarioa
- Diru-sarreta eta gastuen urteko aurrekontua
- Egindako gastuen egiaztagiriak zuzendariaren sinadurarekin gastua onartzen dela adierazten duena.
- Aurrekontuaren balantzeak eta likidazioak

2. Ikastetxearen ekonomi kudaketak, ondoren, izaera ekonomiko finantziarioa duen kontu-hartzaile kontrola izango du.

3. Zuzendariak Administrazioaren aurrean ikastetxearen ekonomi kudeaketaren berri emango du. Aurrekontu-ekitaldia bukatu ondoren eta, Hezkuntza-Administrazioak eskatuta, zuzendariak sinatutako ziurtagiriaren bidez, bukatu berria den ekitaldiari dagokion ekonomi kudeaketa justifikatuko du ikastetxeak, likidazio-kontu batean ikastetxeko aurrekontuan agertzen diren baliabideak zertarako erabili diren adieraziz.

4. Gastu bakoitzean egiaztagiri xehetuak ikastetxean geratuko dira, dagokion kontu-harzailea kontroleko organoen eskueran eta, hala badagokio, Kontu Publikoetarako Euskal Auzitegiaren eskueran, dagozkien egiaztapenak egin ahal izan ditzaten.

III- BIZIKIDETZARAKO ARAUAK

III-1. PRINTZIPIO OROKORRAK

Bizikidetzaren oinarriak

DEUSTUKO IKASTOLA IPIren ustez, bizikidetzaren bermatzeko, batetik, hezkuntza komunitate osoak ikasleek eskubideak errespetatu eta babestu behar ditu ezinbestean eta, bestetik, ikasleek beren eskubideak eta eginkizunak arduraz bete behar dituzte, titulu honetan ezartzen denarekin bat etorriz.

Bizikidetzaren plana

DEUSTUKO IKASTOLA IPIk bizikidetzaren plana idatziko du, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak xedatzen duenarekin bat. Bizikidetzaren helburu nagusia bizikidetzan

gerta daitezkeen gatazkak prebenitzea da. Gatazkarik gertatuz gero, beroriek nola ebatzi aurreikusiko da. Abenduaren 2ko 201/2008 Dekretuaren bitartez, aukerako zenbait bide ezarri ziren hainbat jardura eta neurri aplikatzeko. Hartara, gatazkak ebazteko, aipatu berri dugun Dekretuaren bidez ezarri ziren neurriak aplikatuko dira. Horretarako, beharrezko balitz, bitartekaritza-prozedurak erabil daitezke.

Eskubideen berehalako babesa

Ikasleek Abenduaren 2ko 201/2008 Dekretuko 6. artikulutik 21. artikulura bitartean jaso diren eskubideak izango dituzte. 1 Irakasleren batek ikusten badu ikasleren baten jokabidea

arestian aipaturiko eskubideen kontra doala edo eskubide horiek betetzea galarazten duela, esku hartu beharko du berehala. Jokabide okerra izan duen ikaslea ahoz ohartarazi beharko du eta, ondoren, ikasketaburuarengana joateko agindu.

Betebeharrak betetzeko bermea

Ikasleek Abenduaren 2ko 201/2008 Dekretuko 21. artikulutik 27. artikulura bitartean jaso diren betebeharrak bete beharko dituzte..Irakasleren batek ikusi badu ikasleak ez dituela bere betebeharrak bete, haren jokabidea zuzendu beharko du berehala. Horrez gain, irakasleak uste badu ikasleak bere jokabideaz hezkuntza-komunitateko beste kide batzuen eskubideak urratu dituela, ikasketaburuarengana joatea aginduko dio.

III-2 IKASLEEN ESKUBIDEAK BETETZEKO BERMEA

III-2.1. Irakasleek ikasleen eskubideak babesten laguntzea

Deustuko ikastola IPIko irakasle guztiek abenduaren 2ko 201/2008 Dekretuaren bidez ikasleei aitortu zaizkien eskubideak babesten lagunduko dute. Horretarako, araudi honetan eta aginte-organoen jarraibideetan zehaztutakoari jarraituko diote.

III-2. 2. Segurtasunarekin lotura duten eskubideak zaintzea

1. Tutoreek nahiz gainerako irakasleek hautematen badute ikasleren bat tratu txarrak jasotzen ari dela edo, Eskubideen eta Betebeharren Dekretuko 7.2 eta 7.3 artikuluetan aurreikusitakoarekin bat, haurren bat arriskuan edo babesik gabe dagoela, ikasketa-burua edo zuzendaria jakinaren gainean jarriko dute.

2. Irakasleek berdinkideen arteko tratu txarrak prebenitu edo ahalik eta lasterren hauteman behar dituzte. Tratu txarren arrastorik antzemanaz gero, zuzendaritza taldea jakinaren gainean jarriko du berehala, egoki diren protokoloak aplikatu daitezzen.

3. Ikasketa-buruak zenbait irakasle – begien bistaz ikasle guztiak kontrolatzeko bezainbat – izendatuko ditu ikasleen jarduna jolas-orduan zaindu dezaten. Irakasleek jolas-orduan ikasleen jarduna zaintzea nori dagokion jakin behar dute. Irakasleek bertatik bertara egon behar dute eta uneoro ikasleei begira egon. Zuzendariak jolas-orduan zenbait toki erabiltzea debekatu dezake, irakasleen zainketa zailtzen badute.

III-2.3. Ondra, intimitatea eta irudi propioa babesteko eskubidea

1. Ikasleek nahiz hezkuntza-komunitateko gainerako kideek haien ondra, intimitatea eta irudi propioa babesteko eskubidea dute. Horrenbestez, Deustuko ikastola IPIko aginte-organoek, tutoreek eta irakasle guztiek babestu beharko dute ikasleen nahiz hezkuntza-komunitateko kideen eskubide hori. Zuzendaritza taldeak zenbait arau proposatuko dizkio IKri grabatzeko bideoen, sakelako telefonoen eta, oro har, teknologia berrien erabilerari buruz. IKk, bere aldetik, arau proposatu horiek onartu ala ez aztertuko du. Aipatu berri ditugun arauen bidez, ikasgelan grabazioak egitea, argazkiak ateratzea eta sakelako telefonoa erabiltzea galarazita egongo da. (Mugikorren erabilerari buruzko protokoloaren eranskina dago)

2. Ikasgelatik kanpo – hau da, eraikinean edo eskola-barrutian – aipatu berri ditugunak erabiltzea baimentzen bada, egoki izan daitezkeen muga guztiak proposatu daitezke. Batera zein bestera, debekaturik egongo da hezkuntza-komunitateko kideren bati bere baimenik gabe argazkiak ateratzea edo hura filmatzea. Debekatuta egongo da ere hezkuntza-komunitateko

kidearen baimenaz atera den argazkia edo egin den grabazioa interesdunaren baimenik gabe erabiltzea.

III-2.4. Biltzeko eskubidea

Deustuko Ikastola IPIko aginte-organismoek ziurtatuko dute biltzeko eskubidea –Legeak ikasleei aitortzen diena– modu eraginkorren gauzatzen dela. Biltzeko eskubidearekin erlazioatutako alderdi guztiak zainduko dituzte. Alde horretatik, biltzeko eskubidea gauzatzea hezkuntza-helburuarekin bat datorrela eta adinez txikikoen babeserako Legeak ezartzen dituen aginduekin bat datorrela bermatuko da. Horretarako, pertsona bakarreko aginte-organismoek paragrafo hauetan zehazten dena hartuko dute kontuan:

a) Taldeak gelan bil daitezke ikasketei buruzko gaiak lantzeko, eskolarik galdu gabe, aldez aurretik tutoreari jakinaraziz. Hala badagokio, tutorea bileran izango da. Horrez gain, hilean behin eskola-ordutan bil daitezke, ordubetez gehienez ere. Horretarako, tutoreari gai-zerrenda jakinarazi behar diote aldez aurretik. Bilera horietan taldetik kanpoko ikaslerik ezin izango da egon. Tutorea ez badago, bilera horien buru eta moderatzaile taldeko ikasleen ordezkaria izango da.

b) Zuzendariak adieraziko du Ordezkarien Batzordeak zer lekutan egingo duen bilera.

c) Ordezkarien Batzordeak, egoki jotzen duenean, ikasle ordezkariak kontsulta egitea erabaki dezake. Horretarako, Ordezkarien Batzordeak Ikasketaburuari baimena eskatuko dio, eta horrek, gai-zerrenda irakurri ondoren eta bertako gaiak Ordezkarien Batzordearen eskumenekin duten egokitzapen-mailaren arabera, baimena emango du ala ez du emango. Horrez gain, aurreko bileretan gai-zerrenda errespetatu ez bada, baimena ukatu dezake. Ikasketaburuaren erabakiaren aurka erreklamazioa aurkez daiteke zuzendariaren aurrean.

d) Bileren deialdia ikasle guztiei jakinaraziko zaie ikasleen ordezkarien bitartez, bileraren aurreko egunean. Gai-zerrendaren berri emango zaie ere. Bileretara joatea ez da derrigorrezko izango.

e) Ikasketaburuak, zuzendariaren agintepean, bilera non eta noiz egin erabakiko du. Hasiera batean eskola-ordutegitik kanpo egingo da. Horretarako, ikasketaburuak eskolen ordutegia alda dezake, eskolen iraupena murriztu gabe.

f) Hala ere, Ika osatzen duten hiru sektoreek –ikasleek, gurasoek eta irakasleek–, gehiengo erlatiboaren bidez onesten badute, ikasketaburuak eskolen iraupena murriztuko du bilerak ordubete iraun dezan. Horretarako bileran aztertuko diren gai kopurua eta gaien izaera kontuan hartuko dira. Eskola-ordutegia murrizten bada, eta erabakia bileraren bezperan hartzen bada, eta irakasle guztiei jakinarazten bazaie murriztapena eskola guztien artean banatuko da. Aitzitik, erabakia bilera egingo den egunean bertan hartzen bada, bilera egiten den jolas-orduaren aurreko eta ondorengo eskolak bakarrik murriztuko dira.

III-2.5. Taldeak eskoletara ez agertzeari buruzko arauak

Biltzeko eskubidea betetze aldera, biltzeko eskubidea betetzearen ondorioz DBHko hirugarren mailatik gorako ikasle talde bat derrigorrezko eskoletara edo bestelako jardueretara huts egitea ez da jokabide okertzat hartuko. Gertakari horiek ezingo dira zuzendu, betiere, jarraian aipatuko duguna betetzen bada:

a) Eskoletara ez agertzeko proposamena ikastetxeko Ordezkarien Batzordeak hartuko du hasiera batean, bere ekimenez edota ikastetxean matrikulatuta dauden ikasle guztien edo legez aitortzen diren elkarteetako, federazioetako edo konfederazioetako ordezkarien %5ak hala eskatzen badu. Aldez aurretik jarraian azaltzen diren alderdiak eztabaidatu beharko dira: Deialdiaren hezkuntza- edo prestakuntza-helburua.

Deialdiak ikastetxearekin duen lotura.

Ikasle guztiek haren gain hausnartzeko duten denbora.

Aurretik egindako beste deialdiak edo aurrerantzean egingo direnak.

b) Proposamena Ordezkarien Batzordeak onesten badu, deialdia idatziko da, artikulua honen 5.a) atalean adierazitako alderdiekin bat arrazoitua, eta deialdia egiten dutenak zeintzuk diren adieraziz. Horrez gain, orduak eta programatutako jarduerak adieraziko dira. Deialdia bilera egin baino bi lanegun lehenago egingo da gutxienez, deialdia egiten dutenek premia eragiten duten arrazoiak ikasketaburuaren aurrean aurkezten dituzten kasuan izan ezik.

c) Deialdia ikastetxearen zuzendaritzari helaraziko zaio eta, 52. artikulua 1. paragrafoan xedatutakoaren arabera, xede horretara zuzendutako espazioetan eta lekuetan jarriko da. Bozketa amaitu bitartean, adierazitako lekuetan azaldu beharko du informazio guztiak.

d) Ordezkarri bakoitzak dagokion ikasle taldeari deialdia jakinaraziko dio, baita deialdia ikusgai egongo deneko lekua ere; deialdia ezin izango da geletan jarri eta ezin izango da ikaslerik behartu deialdiaren berri izatera. Modu berean, bozketa egingo deneko lekua eta unea jakinaraziko dira. Zuzendariak berariaz baimendu ezean, bozketa ezin izango da ikasgeletan egin.

e) Ikasketaburuak botazioa egingo deneko jolas-orduaren aurreko eta ondorengo eskolak murriztea erabaki dezake.

f) Botazioari jolas-ordua hasi bezain laster ekingo zaio; ikasturte bakoitzak mahai bat izango du eta ikasketaburuak zainduko du, edo haren kargua eskuordeturik hartu dueneko irakasleak. Mahai bakoitzean gutxienez talde bakoitzeko bi ordezkari izango dira: batek, NANen bitartez edo ikastetxeko txartelaren bitartez ikasleen nortasuna egiaztatuko du eta dagokion ikasle taldearen zerrendan sartu; eta, bestea, ikasleen boto-txartela hartuko du.

g) Erabiliko diren boto-txarteletan, (BAI/SÍ) eta (EZ/NO) aukerak azalduko dira, bakoitza laukitxo batean. Hautesleek bi aukeretako baten alde egin beharko dute. Hartara, beraiek hautaturiko aukeraren laukitxoan ixa bat egin beharko dute tintaz edo bolalumaz. Bi laukitxoetan marka bana duten boto-txartelak baliogabeak izango dira, baita norberak bete ez duen botoa edo beste modu batera betetako botoa ere. Markadun laukitxorik ez duten botoak eta bestelako daturik ez dutenak boto zuritzat hartuko dira.

h) Bozketa amaitu ondoren, mahai bakoitzean botoak zenbatuko dira. Emandako botoen batura, boto baliogabeak eta zuriak barne, ikastetxeko ikasle kopuruaren erdia gehi bateko quorumera iristen ez bada, botazioak ez du baliorik izango, eta ezin izango da deialdi berdinerako beste botaziorik egin. Beraz, deialdia besterik gabe baztertuko da.

i) Bozketaren emaitza baliozko izan dadin, quorum hau beharrezkoa da: botoen erdiak gehi bat. Quorum nahikoaz ikasketaburuaren proposamena onartu bada, azken horrek ikasleek hartutako erabakia deialdiarekin batera jarriko du ikusgai. Emaitza ez da inoiz loteslea izango

eta ikasleek eskolara joateko duten eskubidea gauza dezakete. Nolanahi ere, deialdi onetsiari jarraiki eskoletara ez agertzea ez da jokabide okertzat hartuko eta ez da egintza hori zuzentzeko neurririk ezarriko.

Hala ere, gurasoek horren berri eduki behar dutenez, tutoreari haien seme-alabak eskoletara joango ez direla adierazten duen idazkia bidaliko diote.

j) Eskoletara agertzen ez den ikasleak ezingo du jantoki zerbitzua erabili eta eskoletara agertzen denak eguneko ordutegi osoa beteko du.

k) Ikastetxeak eskolak emango ditu, agertzen ez den ikasle kopurua edozein izanda ere.

III-2.6. Idatzizko adierazpen askatasunaren eskubidea betetzea

1. Apirilaren 19ko 201/2008 Dekretuaren 14. artikulua ikasleei aitortzen dien adierazpen askatasunaren eskubidea gauzatzeko:

- a) Zuzendariak – edo, haren lekuan, ikasketaburuak– arautuko du eskubide hori gauzatzeko modua, espazioak eta lekuak. Edozein kasutan, erakundeekiko eta hezkuntza-komunitateko kideenganako errespetua kontuan hartu beharko da.
- b) Edonola ere, informazioa jendarteratzeko dauden lekuetan eta espazioetan jartzen den informazio orotan, informazioaren erantzule den pertsonaren, erakundearen, elkartearen zein taldearen izena agertuko da.
- c) Gelen barruan eskolako jardueri buruzko informazioa bakarrik jar daiteke.

2. Aipatu arauak errespetatzen ez dituzten informazioak kendu egingo dira, zuzendariaren edo ikasketaburuaren aginduz.

III-3. IKASLEEN BETEBEHARRAK BETETZEKO BERMEAK

III-3.1. Printzipio orokorra

1. Abenduaren 2ko 201/2008 Dekretuak zenbait betebeharrak ezarri dizkie ikasleei. Ikasleek betebeharrak ez betetzea, gutxienez, jokabide okertzat hartuko da beti. Hutsegite hori, halaber, bizikidetzari kalte larria eragiten dion jokabide edo bizikidetzaren kontrako jokabide izan daiteke, baldin eta haren bidez hezkuntza-komunitateko gainerako kideei beren eskubideak betetzea galarazten bazaie, edota hezkuntza-komunitateko gainerako kideen eskubideak zuzenean urratzen badira.

2. Betebeharrak betetzen ez direla ikusten duen irakasleak esku hartu beharko du derrigor. Horrenbestez, bizikidetzarekin bat ez datorren jokabidea zuzendu beharko du, betiere, arestian aipaturiko Dekretuan nahiz araudi honetan ezarritakoarekin bat etorriz.

3. Ikasleen betebeharrak eskolara etortzea denez, eskola-ordu guztiak osorik bete behar dituzte.

III-3.2. Zuzendu beharreko jokabideak

Ahalik eta lasterren zuzendu behar dira 201/2008 Dekretuak okertzat jo dituen jokabide guztiak, baita bizikidetzaren kontrakoak edo bizikidetzari kalte larriak eragiten dizkietenak ere. Ahal den heinean, neurri zuzentzaileek zuzendu beharreko jokabidearekin lotura izan behar dute, hainbestekoa non zuzendu beharreko jokabidearen ondorioztat har daitezkeen.

III-3.3. Jokabide desegokiak

1. Jokabide desegokitzat arestian aipaturiko Dekretuaren 30. artikuluan aipatu direnak hartuko dira.

2. Deustuko Ikastola IPIan, arestian aipaturiko Dekretuan jaso denaren arabera, ikaslea une horretan babespean duen irakasleak zuzenduko ditu jokabide desegokiak.

3. Ikasketa-buruak ezarriko du jarraitu beharreko prozedura. Prozedura hori indarreko arauekin bat etorriko da beti. Era berean, jokabidea zuzentzeko ahozko ohartarazpena baino zerbait gehiago aplikatu behar bada, halaxe jakinarazi beharko zaio ikaslearen tutoreari.

III-3.4. Bizikidetzaren kontrako jokabideak

1. Bizikidetzaren aurkako jokabideak Eskubideen eta Betebeharren Dekretuko 31. artikuluan aipatzen direnak dira.

2. Bizikidetzaren aurkako jokabiderik hautematen duen irakasleak, lehenik, aurkako jokabidea izan duen ikaslea ahoz ohartaraziko du. Ondoren, ikasketaburuarengana edo haren ordezkorengana joatea aginduko dio. Azkenik, ikasketaburuak eta zuzendariak zehaztu duten prozedurari jarraiki, gertakarien eta jokabide okerra zuzentzeko berehala egin duenaren berri emango du.

III-3.5. Bizikidetzari kalte larria eragiten dioten jokabideak

1. Bizikidetzari kalte larria eragiten dioten jokabideak Eskubideen eta Betebeharren Dekretuko 32. artikuluan aipatzen direnak dira.

2. Bizikidetzari kalte larria eragiten dion jokabidearen lekuko izan den irakasleak, lehenik, ahoz ohartaraziko du bizikidetzari kalte larria eragiten dion jokabidea izan duen ikaslea. Ondoren, ikasketaburuarengana edo haren ordezkorengana joatea aginduko dio. Azkenik, ikasketaburuak eta zuzendariak zehaztu duten prozedurari jarraiki, gertakarien nahiz jokabide okerra zuzentzeko berehala egin duenaren berri emango du.

III-3.6. Bizikidetzaren aurkako jokabideak eta hari kalte larria eragiten diotenak zuzentzeko prozedura

Bizikidetzaren aurkako jokabideak eta hari kalte larria eragiten diotenak zuzentzeko, abenduaren 2ko 201/2008 Dekretuan aurreikusi dena aplikatuko da. Gatazka ebazteko, 201/2008 Dekretuko III. kapituluan aurreikusi diren aukerako bideak erabili behar dira.

III-3.7. Bitartekaritza Taldea

Deustuko Ikastola IPIren Bizikidetzari buruzko Olagarro programak adierazten duenez, Bitartekaritza Taldea eratuko da honako kide hauek izango dituelarik:

- Olagarro proiektuaren arduraduna
- DBHko orientatzailea
- DBHko PTa

- Ikasketa burua
Horiez gain, dagokion tutoreak edo inplikaturak dagoen edozein irakasleek ere parte har dezake.

Bitartekaritza Taldearen xedea hau da:

Elkarbizitza esparruko gatazka baten aurrean ikastolako komunitatean har daitezkeen erabakiak eta soluzio bideak aztertzea eta abian jartzea.

Bikartekaritza Taldearengana ikasleek, gurasoek edo irakasleek jo dezakete bizikidetzaren arazoren bat sortuz gero, bertan konponbidea bilatzeko asmoz.

IV- EBALUAZIO ETA PROMOZIO ARAUAK

IV-1. Ebaluazioa HHn

1. Ebaluazioa orokorra, jarraitua eta prestakuntzazkoa izango da. Behaketa zuzena eta sistematikoa izango da ebaluazio-prozesuko teknika nagusia.

2. Haur Hezkuntzako irakasleek irakaskuntza-prozesua, beren hezkuntza-jardutea eta haurrek gaitasunak eskuratu dituzten ala ez ebaluatuko dute, maila horretarako helburuekin eta ezagutzarekin bat. Etapa honetarako, ebaluatzeko teknika egokiena harurraren behaketa zuzena eta sistematikoa da. Garrantzitsua da irizpide argiak izatea, behagarriak eta eta erregistra daitezkeenak,

Familiarekin elkarriketa egitea eta elkarriketa horretan gertatzen den informazio-trukea dira ebaluazioan laguntzen duten beste elementu batzuk.

3. Familiak seme-alaben irakas- eta ikas-prozesuari buruzko informazioa jasoko dute gutxienez hiru hilean behin.

IV-2.Promozioa HHn

Lehen Hezkuntzara automatikoki igaroko dira ikasleak. Hezkuntza-premia bereziak dituztenak bakarrik egon ahalko dira beste urtebete Haur Hezkuntzan.

IV-3. Ebaluazioa LHn

1. Ikasleen ikaskuntzaren ebaluazioa banakakoa, jarraitua eta globala izango da eta taldean zuzenean parte hartzen duten irakasleek egingo dute. Tutorea izango da talde horren koordinatzailea eta buru. Irakasle bakoitzak egingo du irakasten duen gaiaren ebaluazioa.

2. Aldi bakoitzaren amaieran ikasleen ikaskuntzak eta irakas-jarduna ebaluatuko dira. Urteko planen edota ikasturte aurkezpeneko batzarrean zehaztuko dira, bai ebaluazio eta batia bitartekoak, beti ere ikastetxeko curriculum-proiektuaren irizpideak jarraituz eta beste proiektuak kontuan hartuz.

3. Tutorea arduratuko da ikasle bakoitzari buruzko txosten bat egiteaz. Bertan jasoko dira ohiko emaitzez gain, hutsunerik balego, errefortzu eta konpentsazio programak.

4. Ziklo bakoitzaren amaieran tutoreak, dagokion aktan eta legeak markatzaen duenaren arabera, arloetako kalifikazioen berri jasoko du; ikasleak promozionatzen duen ala ez ere jasoko du. Datuok ikasle bakoitzaren ikasketa-espeditentean eta historian jasoko dira.

5. Zikloko koordinatzaileak ikasleen ebaluazioari buruzko txosten-laburpen bat egingo du, zikloko irakasle taldeak egindako analisiaren berri eta proposatutako neurriren berri jasoaz. Txosten hori ikasketa buruari luzatuko dio edota batzorde pedagogikoan aurkeztuko du azter dezan.

6. Tutoreak idatziz emango die ikasle eta gurasoei ebaluazioari buruzko informazioa. Elkarrizketa pertsonalak ere egin daitezke helburu horrekin.

IV-4. Promozioa LHn

IV-4.1. LHko 1. eta 2. zikloa

Arloen hiru multzo desberdinduko ditugu:

- a) Matematika, euskara eta gaztelania
- b) Ingurunea eta ingelesa
- c) Arte hezkuntza eta heziketa fisikoa

1. Lehenengo taldeko arloetan gutxiengoetara ez bada heltzen, errepikatu beharko luke, beti ere, umearen heldutasuna, bere buruarekiko ziurtasuna eta iritzia eta taldeko harremanak kontuan izanda.

2. Lehen taldeko arloetan batz bestea, nahiko justu badao, bigarren taldeko gaien arabera erabakiko da, beti ere, umearen heldutasuna, bere buruarekiko ziurtasuna eta iritzia eta taldeko harremanak kontuan izanda.

3. Euskaraz ezer ez dakien umeren bat ziklora heldu ezker, eta bukatzerakoan euskarazko ulermenean ez bada lehen zikloko gutxiengotara heltzen errepikatu beharko luke, beti ere, umearen heldutasuna, bere buruarekiko ziurtasuna eta iritzia eta taldeko harremanak kontuan izanda.

IV-4.2. LHko 3. zikloa

Arloen hiru multzo desberdinduko ditugu:

- a) Euskara, matematika eta gaztelania
- b) Ingurunea eta ingelesa
- c) Arte hezkuntza eta heziketa fisikoa

1. Ziklo bukaeran arlo guztiak gaindituta duten ikasleek hurrengo etapara promozionatuko dute.

2. Aurreko urteren baten errepikatu duten ikasleek zikloz promozionatuko dute.

3. Lehenengo taldeko arloak gainditzin ez dituenak, ez du promozionatuko. Beti irakasle taldearen erabakiz.

4. Lehen taldeko bi arlo eta bigarren taldeko arlo bat gainditzin ez duenak, ez du promozionatuko. Beti irakasle taldearen erabakiz.

5. Aurreko 4 puntuetan batzen ez diren beste kasu guztiak irakasle taldeak erabakiko ditu.

IV-5. Erreklamatzeko eskubidea LHn

Ikasleek eta, dagokionean, horien gurasoek edo legezko ordezkariak, beren errendimenduaren ebaluazioan eragina izango duten lan, proba eta ariketa guztiak eskuratu ahal izango dituzte zuzenduta daudenean, eta dagozkion alegazioak aurkeztu ahal izango dituzte, bai eta horien berraztertzea eskatu ere. Zuzenketa ez da kalifikazio hutsera mugatuko: egindako akatsak adierazi, eta gainditzeko jarduerak proposatuko dira.

Erreklamazioak tutorearen bidez egingo dira, berak bideratzeko. Erreklamazio horri emandako erantzunarekin ados ez egotekotan legeak markatzen duenari jarraitu behar zaio.

IV-6. Ebaluazioa DBHn

1. Ikasleen ikaskuntzen ebaluazioa indibidualdua eta jarraitua izango da eta irakasle guztiek egingo dute taldean. Tutorea izango da talde horren koordinatzailea. Irakasle bakoitzak egin behar du irakasten duen irakasgaiaren ebaluazioa.

2. Ebaluazio bakoitzaren bukaeran ikasleen ikaskuntzak eta irakas-jarduna ebaluatuko dira. Urteko planean ebaluazio-bilkurak zer egunetan egingo diren eta zer tresna erabiliko diren adierazi beharko da, curriculum-proiektuaren irizpideen arabera.

Ebaluazio bakoitzaren erdian ere ikasleen ebaluazioa egingo da, erdi-ebaluaketa bezala funtzionatzen duena. Prestatutako txantiloiei batean ikasgai bakoitzari buruzko informazio laburra idatziko dute irakasleek, geroago jasoterakoan familiek irakur dezaten.

3. Ikasketa buruak ebaluazio-bilkuretara joateko deia egingo die irakasle guztiei eta horiek bertara joan beharko dute ezinbestez.

Tutoreak bilkuraren informazioa jasoko du eta iritsitako akordioak eta proposamenak kudeatuko ditu, beti ere ikasketa burua jakinaren gainean jarrita.

4. Tutoreak idatziz emango die ikasle eta gurasoei ebaluazioari buruzko informazioa. Elkarrizketa pertsonalak ere egin daitezke helburu horrekin. DBHko 4. maila bukatutakoan tutoreak, orientabide-zerbitzuaren laguntzaz, proposatuko dituen orientabide gisako aholkuak ere emango zaizkie ikasle eta gurasoei.

5. Ikasturte amaieran ohiko ebaluaketa egin ostean, ez-ohikoaren deialdia egingo da. Honetara ikasturtean zehar ikasgaia gainditu ez duteneek eta beste ikasturteetako gaintugabe dutenek egin beharko dute. Jarritako datak ezingo dira aldatu, legeak markatzen dituen salbuespen kasuetan izan ezik.

6. Ikasturte bakoitzaren amaieran, aktan jasoko da ikasleen ebaluazioen berri, zenbaki osoaz jarriz gain, ondoko terminoak erabiliko direlarik kasuak kasu: bikain, oso ongi, ongi, nahikoa, gutxi eta EA (ez aurkeztua).

Ohiko deialdiaren aktan igarotzen duten ikasleak adierazi behar dira. Ez-ohikoaren aktan, aldiz, igarotzen ez dutenak ere.

7. Ebaluazioa amaitu bezain laster, tutore-taldeak eta gaietako departamentuek amaitu berri den aldia eta ikasleen kalifikazioak aztertuko dituzte.

Tutoreek (guztiak edo maila berekoek) taldeen egoera aztertuko dute, batez ere ebaluazio negatibo gehiago dauden taldeena, neurri egokiak proposatzeko. Horrelakoetan, orientatzailearen eta laguntzako irakaslearen laguntza izango dute.

Gai bakoitzaren departamentuetan, talde eta maila desberdinetako ebaluazioak ikusi ondoren, programazioak aztertuko dira. Gabezia esanguratsuak daudela ikusiz gero, egoki iruditzen zaizkien neurriak hartuko dituzte departamentuek. Era berean, tutore-taldeen proposamenak aztertuko dituzte.

IV-7. Promozioa DBHn

Maila igarotzeko ikasleak, gehienez, bi ikasgai eduki ditzake gainditu gabe. Hala ere, legeak adierazten dituen salbuespenak kontuan har litezke.

DBHko titulua lortzeko ikasleak ikasgai guztiak eduki beharko ditu gaindituta. Beste kasuetan, irakasle taldeak azken ebaluaketan ikasleak ikasgai batekin edo, gehienez, birekin, aurrera egin dezakeela erabakiko balu titulua eskura dezake.

DBHko maila bakoitza behin errepika daiteke, kontuan izanda Derrigorrezko Hezkuntza osoan birritan errepika daitekeela.

DBHko 4. maila birritan errepikatu daiteke, Derrigorrezko Hezkuntza osoan beste mailetan errepikatu ez den kasuetan.

IV-8. Erreklamatzeko eskubidea DBHn

Ikasleek eta horien guraso nahiz tutoreek ebaluazio emaitzak erreklamatzeko aukera izango dute. Era berean, edozein proba edo idatzizko lan zuzentzerakoan erabilitako irizpideak ezagutzeko eskubidea dute eta jarritako kalifikazioa erreklamatzekoa.

Lehenbizi, irakasgaia irakasten duen irakasleari aurkeztuko diote erreklamazioa eta berarekin elkartuta irakasleak informazioa emango die gurasoei eta, nahi izanez gero, azterketa edo frogak erakutsiko dizkie.

Irakaslearen erabakiarekin bat ez badatoz, dagokion Departamentura jo daiteke. Honetarako, ikasketa buruaren bitartez kontaktuan jarrita, departamentu buruarekin hitz egin daiteke erreklamazioa burutzeko.

Bukatzeko, Hezkuntzako Ikuskaritzaren aurrean aurkez dezakete erreklamazioa. Deustuko Ikastola IPIak, Ikuskaritzak eskatzen badio, eskura duen dokumentazioa eta egoki iruditzen zaizkion alegazioak aurkeztuko ditu.

Aipatutako instantziaren batean lehen erabakia aldatuz gero, aktan eta ikaslearen espediente eta ikasketa historian jasoko da aldaketa.

V- BESTE ARAUAK

V-1. DBHko aukerakoak eta aukera askeak

DBHko 3. mailan aukerako batzuk eskeiniko dira (Artea, Frantsesa, Marrazketa, edo Ikerketa, adibidez). Ikasturte batetik bestera ezberdinak izan daitezke.

DBHko 4. mailan, aldiz, ikasleek aukera askeak izango dituzte. Frantsesa, Informatika, Latina, Musika, Biologia eta Geologia, Fisika eta Kimika, Teknologia eta Plastika irakasgaien artean ikasleak hiru aukeratu beharko ditu.

Aukeraketa hauek egiteko honako prozedura hau jarraituko da:

1. Ikasleei aukeraketa egiteko orria banatuko zaie orientazioa eman eta gero.
2. Betetako orria gurasoek edo legezko tutoreek sinatuko dute eta aste baten buruan tutoreari itzuli beharko zaio,
3. Tutoreak bere ikasleen datuak jasoko ditu zerrenda batean eta geroago Ikasketa buruari pasatuko dio.
4. Jasotako datuekin ikasketa burutzan aukeren behin-behineko zerrendak egingo dira. Aukeraren bat posiblea ez balitz, ikasleari besteren bat eskeiniko litzaioke.
4. Ikasleak bere aukerak zuzen jarrita daudela konprobatuko du. Horrela ez izatekotan, aste beteko epea edukiko du erreklamatzeko.

5. Erreklamazio guztiak kontuan izanda zerrendak berrituko dira.

6. Familiak ikasleari jarritako aukera zuzena ez dela pentsatzen badu, 5 laneguneko epea edukiko du aldaketa eskatu ahal izateko, eskaera idatziz eta sinatuta egingo delarik.

7. Eskaerak aztertu eta gero, hurrengo ikasturterako behin betiko zerrendak argitaratuko dira.

V-2. Ekintza osagarrietan parte hartzeko araua

Deustuko Ikastola IPIren izenean ikastetxean bertan nahiz ikastetxetik kanpo ekintzak antolatzen direnean ikasleek parte hartu ahal izateko bertan matrikulatuta egon behar dute ekintza hori dagoen bitartean.

V-3. Ikasketa bidaiari buruzko araua

DBHko 4. mailan antolatzen den ikasketa bidaia ikastolaren izenean izaten da. Gurasoek baimenduta joaten dira DBHko 4. mailakoak eta aurreko maila errepikatzen ari diren ikasleei ere joateko aukera ematen zaie, betiere matrikulatuta baldin badaude ikastolan bidaia egiten den ikasturtean.